

Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Biziazen Hiztegia. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioa. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junés Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastoralak. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodiaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*. Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charriton*. Le fondement moral des droits culturels de l'homme. (kultura eskubideen oinarri etikoak). 2013
24. *Pierre Dourisboure*. Bahnar deitu salbaiak. 2014
25. *Mongongo Dassanza*. Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014
26. *Ignazio Omaetxabarria*. Euskara barrutik. Estudios de lingüística vasca. 2016
27. *Resurreccion Maria Azkue*. Ardi galdua. 2018
28. *Jakes Sarrailet*. Janpierra Lexardoarteren bizitza edo Basabürüaren trajeria. 2018
29. *José Agerre Santesteban*. Biografía de Arturo Campión. 2019
30. *Adrien Gabiteguy*. Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko. 2019
31. *Joakin Berminghamen solasak*. 2020
32. *Emil Larre*. *Emil Larre 1926-2015*. *Lekukotasun, kantu eta idazki*. 2020
33. *Jean-Louis Davant*. *Ozaze Jaurgainian*. 2020

Euskaltzainak izeneko bilduman euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

Laguntzailea:




JEAN-LOUIS
DAVANT
IRATÇABAL

OZAZE JAURGAINIAN

JEAN-LOUIS DAVANT IRATÇABAL

OZAZE JAURGAINIAN

**Jean de Jaurgainen Züberoa Herriko
kontaira poetiko zorbait**



**EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINIA**



JEAN-LOUIS DAVANT IRATÇABAL

Ürrüstoi-Larrabilen (Züberoa) jaio zen, 1935eko uztailearen 5ean. Agronomia ingeniaria. Erretiroa hartuta Hazparneko Laborantza Eskolan irakasle izatetik.

Euskaltzain urgazle izendatua 1965eko irailaren 24an eta oso 1975eko otsailaren 28an. Euskaltzain emeritua da 2010eko uztailearen 23tik.

Sarrera hitzaldia Anton Abadiak eta Joseph Augustin Xahoz irakurri zuten Maulen 1976ko abuztuaren 22an.

1957tik idazle militantea aldizkari eta kazeta andana batean laborantzaz, ekonomia orokorraz, sozial arazoez, politikaz, hizkuntzaz, kulturaz, historiaz...

Euskaraz hogeita hamar bat liburu idatzi ditu: eleberrri bat, zortzi olerki sorta, hamaika saio, bederatzi pastoral edo «trajeria» publikatuak, horietarik zazpi antzeztuak, beste bat 2021eko; gehi hainbat liburuxka, gehienak haurrentzat frantsesetik eginiko itzulpenez.

Frantsesez *L'économie basque* (Enbata, 1967), *Histoire du peuple basque* (Goiztiri-Elkar, 1970-2007), *Le « problème basque » en 20 questions* (Elkar, 2006 eta 2012), *Petite histoire du Pays Basque* (Cairn, 2017), *La pastorale basque* (Elkar, 2019).

JEAN-LOUIS DAVANT IRATÇABAL

OZAZE JAURGAINÉAN

Jean de Jurgainen *Züberoa Herriko kontaira poetiko zombait*

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoeekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Imprimatzea: Tecnigraf, S.A.L.

ISBN: 978-84-121889-5-0
Lege-gordailua: BI 01974-2020

JEAN-LOUIS DAVANT IRATÇABAL

OZAZE JAURGAINEAN

Jean de Jurgainen *Züberoa Herriko kontaira poetiko zonbait*

EUSKALTZAINDIA

BILBO
2020

EDIRENGIA

<i>Aitzinsolaz. Joël Larroque</i>	IX
<i>Aitzinsolaz. Jean-Baptiste Battittu Coyos</i>	XIII
I. Nor zen Jean de Jaurgain	I
2. Baskonia herriaz bi hitz	7
3. Literatūra-kritikaria	II
4. Sei kontaira poetiko horien aurkezpena	13
5. Züberoa Herriko kontaira poetiko zonbait, idazlea Jean de Jaurgain .	21
I. <i>Urrutiako anderia - Ürrütiako anderea</i>	21
II. <i>Bereteretchen khantoria - Bereterretxen kantorea</i>	27
III. <i>Atharratze jauregiko anderia - Atharratze jauregiko anderea</i>	40
IV. <i>Egun bereko alharguntsa - Egun berreko alargüntsa</i>	56
V. <i>Mus de Sarri - Musde Sarri</i>	59
VI. <i>Arbotiko prima eijerra - Arbotiko prima eijerra</i>	62
6. Jaurgainek agertü kontairen ütürriak	65
6.I. <i>Urrutiako anderia</i>	69
6.2. <i>Bereteretchen khantoria</i>	73
6.3. <i>Atharratze jauregiko anderia</i>	75
6.4. <i>Egun bereko alharguntsa</i>	78
6.5. <i>Mus de Sarri</i>	79
6.6. <i>Arbotiko prima eijerra</i>	81
7. Agosti Chaboren kantutegia, 1844-1855	83
8. Jaurgainen bibliografia	87
Argazkien zerrenda	89

Aitzinsolaz

2020 urte hontan zeren berriz argitara Jean de Jurgainen *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* libürükka, 1899an agertü zena Vienne departamentüko Ligugé herrian ? Ez, hau ez da bigerren edizione bat, bena beste obra bat, zeren oraikoan agertzen dena delako libürükaren eüskal ütüzülpena dügü, Jean-Louis Davant euskaltzainak eginik.



Ozaze Jurgainea (Argazkia: en-pays-basque.fr)

Artetik erran dezagün Jurgainek bere lana lehenik aho-mihiz aurkeztü züala Donibane Lohizunen 1897ko agorrilaren 15etik 22ala eüskal ohidürez egin zen biltzarrean. 1899an agertü züan *La tradition au Pays Basque* algarrekilako libürüan, bai eta bereiz argitaratü Ligugéko Saint-Martin inprimerian. Jurgainek hor ekarri sei kantoretarik zaharrenek sei mentez goiti badütüe, bai eta beren denborako üngürümenean erakusteko emaiten deizkün argibideek 120 urtez goiti, horien arartez üsna ditirogularik XV. eta XVIII. menteen arteko arbasoen amodio eta

bekaizteriak, gerla zibilak, miraküllüzko istoriak, etab; arren ez ote da hon beno hobe argibide horik azkenean ager ditean sei kantore xaharrak hontü zütüen koblakari ezezagünen mintzajean ? Haatik horien aipazalea ezagüna dügü, Jurgain historiazalea bestalde kasetalaria izan beitzen, baita genealogian eta heraldikan famatüa Parisen bereziki...

Bai, Jean Baptiste Eugène de Jurgain (1842-1920) ezagütürik zen bere *La Vasconie* libürü famatüari esker: 1898tik 1902ala zatika inprimatürik, iruski berriz agertü da ez dü aspaldi. Jurgainen fama gora egon zen XX. menteko lehen hogeï urteetan, nahiz 1917an agertü züan idazlan batek, *L'évêché de Bayonne et les légendes de St-Léon, étude critique* delakoak eztabada bizia sortü züan. Heraldikan bereziki distiranta zen, Eüskal Herriak oraiko erredolak zor deitzo, eta Eskualzaleen Biltzarreko lehen-dakarigoa honartü züan 1907tik 1911ra, batarzün hori eüskararen zaintzeko eta hedatzeko sortü berria zelarik. Eta geroztik Eüskal Herriaz agertü diren libürü hanitxek eta horien idazleek Jurgain zitazten düe, obretarik bat edo beste aipatzen, horietan beitaude bereziki Philippe Veyrinen *Les Basques* (1947), J-L. Davanten *Histoire du peuple basque* (1970), Eugène Goyhenecheren *Le Pays Basque* (1979), Mañex Goyhenetche zenaren *L'histoire générale du Pays Basque...*

Bere idazlanetarako Jurgaini XIX. mentean familia famatü elibatek beren artxiba pribatüak zabaltü zeitzoen, zonbait geroztik galdü dira, haatik artxiba pübliko elibati ere agitzen zaie galtzea (departamentükoen parte handi bat erre zen 1908an); arren Eüskal Herria eta üngürüan ikerkatü dütüan lürraldeak holako gizon baten lanez baliatü direla ikus-teak boztü behar gütü, süharra bezain zorrotza beitzen, idazten zirenen jorrazale argia, eta bere denborako beste ikerzaleen solaskide irekia, denbora hartako ahalen arabera.

Gure Züberoa Herri txipiko familia noble bena zinez praubetü bate-tan sortürik (horren bizia ikus Interneten *Ikerzaleak* alkartekoek kontatü-rik, baita bere ondoko Renaud d'Elissagaray de Jurgainek 2003an *Eusko Ikaskuntzan* erranik...), Jurgain ez da seküla diharüz aberastü bena gü aberasten gütü bere ikerlanez; horren artxiben altxorra ondokoek 2016an

Baionako ADPA poloan sartü beituë, XXI. mente hontako ikerzaleak gure herriko historiaren barnatzen lagünt ditiro, eta 1899ko libürükaz ere lagüntzen gütü, xiberotar kantore eder haien zergatiak argitüz.

Arren 2020 urtean, Züberoa sorterrian, 1896tik 1905eala bizi izan zen Maulen, horren hiltzeko mentebürüa ospatü nahi üken düë, mediateka eta herriko etxearekin, ondareaz ardüratzen diren *Ikerzaleak*, *Sü Azia*, *les Amis du Château* alkarteek (hirugerren honek zor deio bere kapitain-gaztelüzainen historia 1884-85ean agertürrik), bermazale zütüelarik Euskaltzaindia eta d'Elissagaray de Jaurgainen ondokoak.

Bena jenteen historia bere kontalariaz trüfatü bezala da, zeren Jaurgain 1920ko martxoaren 17an itzali zen, eta ehün urte berantago, 2020ko martxoaren 17an, asteartez, Frantziako gobernüak jentea etxen zokoalatzen züan koronabirüsari bühürtzeko. Gure mintzaldi, erakustaldi, kontzertü... xedeak oro geroko ützi behar, jakin gabe noizko; arren Jean-Louis Davantek eta Euskaltzaindiak argitalpen hau bürüalano eramnik, horien iraipena agertü behar dügü, Jaurgainen lana orano balia-garri dela oritarazten beituë: gure eüskal kantoreen erroak barna dira mentez mente arbasoen olerkigintzan, eta beti bizi dira, eüskararekin, mintzatzen eta kantatzen düan popülüarekin, eta hor agertzen da gure balioen eta borroken zergatia, gure nortarzüna.

Joël Larroque,

Ikerzaleak eta *les Amis du Château* / *Gaztelüaren Adiskideak* alkarteetako kidea, Jaurgainen hiltzeko mentebürüaren ospatzeko taldearen izenean.

Frantsesetik ützüli dü J-L. Davantek.

Jaurgainek Eüskal Herriko zazpi lürralde historikoen erredolak bildü zütüan. Egiaz erredola horik sei dira: Nafarroa Garaiak eta Nafarroa Behereak (Baxenabarrek) berra düë, biak bat beitziren Nafarroako erresuman: Frantziaren eta Espainiaren mügak zatitü zütüan 1530 urtean, Nafarroa Garaia Espainiako erregeek hartü ondoan.



Zazpiak Bat
(Argazkia: Wikipedia)

Aitzinsolaz

Jean-Louis Davant, xiberotar idazlea

Libürü hau aipa beno lehen, Jean-Louis Davant idazleaz bi hitz erran nahi nüke. Lehenik jakin behar da *euskara batuaren* (oraiko eüskara estandarra) sorzaleetarik bat dügüla⁽¹⁾. Baionan, 1963-1964 urteetan, Txillardegiren züzendaritza pean, Jean-Louis kide zen lantalde ttipi batek euskara batuaren lehen hoinarriak eraiki zütüan eta proposatü Euskaltzaindiari. Arantzazun, 1968an, Akademiak proposamen horik honartü zütüan. Hots, manera batez euskara batu modernoa Baionan sortürük da 1964ean, zortzi hilabetetako ernaldi ondoan. Gero, Arantzazun bateiatü züan Euskaltzaindiak eta, ondotik, arraheinkiki hezi orai artino, ezaгүйzen dügün arrakastarekin eüskal komünitateari esker. Bena Baionako lantalde ausart horrek proposamen horik ez bazütüan egin, eüskarak bere biziberritzeko bidean zonbat denbora haboro galdüko züan? Hanitx eta sobera ene ustez.

Bigerrenik, eta hau da interesatzen zaiküna heben, Jean-Louis Davant düala güti zentü den Junes Casenaverekin oraiko xiberotar lüma eman-korrena da. Bere xiberotarrezko izkiribü andana ez düt heben aipatüko⁽²⁾. Eta libürü berri hontan berriz erakusten deikü zer goi mailako

⁽¹⁾ Jean-Louis Davantek horri бүрүз hanitx izkiribatü dü. Ikus, etsenplü gisa, bere jakilegoa-artikulu hau: «Euskara batuaren hastapenak (1963-1964)», 2019, in *Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria*, Bilbo, Euskaltzaindia, 23-34.

⁽²⁾ Haren 2017 artinoko bibliografia libürüxka hontan bada: Manuel Lekuona Saria – Jean Louis Davant Iratçabal, 2017, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 43-49.

(orai erraiten den bezala) xiberotarraren jabe den, Jean de Jurgainen XIX. menteko frantses lantü eta ikasiaren ützültzeko. Hori libürüaren bosgerren kapitülüan edirenen da, hor Jean de Jurgainen *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* libürükka (1899) ützültzen beitü *Züberoa Herriko kontaira poetiko zombait* titülüarekin.

Jean de Jurgainek argitaratü Züberoako sei kontaira poetikoak: xiberotar ahozko literatüraren lehen jakileak

Zoin dira Jean de Jurgainek 1899an püblikatü zütüan *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* libürükaren Züberoako sei «alegia» horik? Hona bi hitz, Jean-Louis Davantek geia ondoko orrialdeetan hobeki eta zabalki presentatüko düala jakitez. Jean-Louisek, *alegiaren* ordez, *kontaira poetiko* erramoldea haütatü dü. Arrazu dü zeren eta testü horietan beti izan ziren egiazko gertakari eta pertsonajeak aipü dira. Alegiak ez dira, hoinarriak ordüko errealitatean badütüe.

- *Ürrütiako anderea*

Kontaira poetiko hau XIX. mentean bildü izan da, A. Xahoren kantütegian zagoan eta Francisque-Michelek 1857an argitaratü züan. Pentsatzen da XV.-XVI. menteetako dela. Ahetzeko Domenja, Baigorriko Etxauz jaunaren arreba, Altzürüküko jauregiko jaunarekin ezkontüririk zen 1422. urtearen altexean. Bere andere espos zorte txarra kontatzen dü. Holako kantoreak ohiko ziren ordü haietan⁽³⁾.

- *Bereterretxen kantorea*

Halaber, kantore hau XIX. mentean bildü izan da, lehenik A. Xahok ez osoa eta gero J.-D.-J. Salaberrik 1870ean argitaratü züan. Pentsatzen da XV. menteko dela (H. Gavel, J. Haritschelhar). Jean de Jurgainek

⁽³⁾ *Euskal Literaturaren Antologia 1: Erdi Arotik Errenazimentura*, 2015, Euskaltzaindia, Bilbo, Euskaltzaindia, 208. or.

Bereterretxen ehaitea I434ren eta I439ren artean jarten dü. Bena, azke-
nean, proba ükaezinik ez dügü kantorearen datatzeko⁽⁴⁾. Hau da ahozko
literatüraren «xarma».

- *Atharratze jauregiko anderea*

Kontaira hau ere A. Xahoren kantütegian zagoan. Francisque-
Michelek eta Salaberrik Jaurgainek beno lehen argitaratü züen. Ikerzale-
ek, testüaren ütxüra eta aipageia kontüan hartüz, XVI. menteko dela
uste düe. Prefosta, beste kontairekin bezala, menteetako ahozko trans-
misioneak kanbiamentürik eta bariazionerik ekarri düe eta kontaira
honen hogeï bat bertsione ezbardin ezagütürik dira⁽⁵⁾.

Beste hiru kontairak, *Egün berreko alargüntsa*, *Musde Sarri* eta *Arbotiko
prima eijerra* berriago dira, XVII. eta XVIII. menteetako üdüriala. Sei
ahozko testü horien testüngürü historikoaren ezagützeko, Jean de Jaur-
gainen ikertze-lanak izigarri balios izan dira. *Quelques légendes...* libürüx-
kan horien frütüak eman zütüan. Bosgerren kapitülüan Jean-Louis
Davantek xiberotarrez ützültzen dütü, hitzez hitz.

Euskaltzaindia, euskara batua eta xiberotar eüskalkia: harreman aberatsak

Aitzinsolaz honen ürrentzeko, Euskaltzaindiak eüskalkiak nola kon-
tün hartzen dütüan erakutsi nahi nüke eta, prefosta, heben xiberotarra.
Alabena zonbaitek, üsü eüskara ezagützen ez düenek, uste düe eta zon-
bait aldiz publikoki erraiten düe Euskaltzaindiak eüskalkiak baztertzen
dütüala euskara batuaren indartzeko edo inposatzeko. Horiek beren
ezjakitatea erakusten düe eta ez besterik. Hona etsenplü elibat aitzini-
ritzi horren, klixe horren desagertarazteko.

⁽⁴⁾ *Ibid*, 172. or.

⁽⁵⁾ *Ibid*, 211-212. or.

Euskaltzaindiak argitaratü düan Atlas linguistikoan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA), Iparraldeko euskalkiek beren lekü osoa badüe. EHHAko galtoteгиak 2.857 galto badütü. Haütatü izan ziren 145 inkesta leküetarik, 45 iparraldekoak ziren: 15 Lapurdin, 18 Nafarroa-Beherean eta 12 Züberoan. Züberoako inkesta-herriak ondoko horik ziren, parentesietan günekal zonbat jakile zen ezari dü: Altzai (3), Altzürükü (5), Barkoxe (2), Domintxaine (3), Biarnoan den Eskiula (2), Larraine (2), Montori (3), Pagola (1), Santa Grazi (5), Sohüta (3), Urdiñarbe (6), Ürrüstoi (1). Galto bakoitxari arrapostüak karta batetan bildürük dira eta, prefosta, karta denetan Iparraldeko euskalkiak edo hizkerak agertzen dira erantzün horien bidez. Oro har II tomok osotzen düe *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (azkena 2020an argitaratürük)⁽⁶⁾.

Halaber, Euskaltzaindiak argitaratzen dütüan hiztegieta Iparraldeko euskalkiak arraheinki kontüan hartürük dira. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* (webgüean 2020/08/08an kontsültatürük), 2.803 hitz badira *Ipar*. llaburdürarekin (Iparraldea), 57 *Lap*. llaburdürarekin (lapurtera), 50 *BNaf*. llaburdürarekin (behe-nafarrera) eta 359 *Zub*. llaburdürarekin (zuberera / xiberotarra). Ordüan 39.292 sarreratarik, 3.269 iparraldekoak dira eta horietan xiberotarraren hitz propioak 359. Erran nahi dü xiberotar hitz horik euskara batuaren parte direla. Euskaltzaindiak publikatü düan *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren 16 tomoetan (1987-2005), mentez mente eüskaraz izkiribatürük diren libürü eta esküizkribü haboroenen lexikoa sartürük eta sailkatürük da, garai eta eüskalki ezbardinetakoa. Eta, halaber, xiberotar literatüra osoa hiztegi historiko hortan sartürük da⁽⁷⁾.

Toponimiaren alorrean aipa ditzadan Euskaltzaindiak düala güti argitaratü dütüan bi izentegi. 2011n *Euskal Herriko Udalen Izentegia* argitaratü du eta 2014ean *Euskal Herriko Ibaiak* izentegia kartekin⁽⁸⁾. *Euskal*

⁽⁶⁾ *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* osoa, II tomoak, kartak, jakileen grabatzeak, etab. www.euskaltzaindia.eus webgüean kontsültagarri dira.

⁽⁷⁾ 2017an hiztegi horren bertsione elektronikoa publikatü dü Euskaltzaindiak bere webgüean.

⁽⁸⁾ Bi izentegi horik paperez eta Euskaltzaindiaren webgüean irakur daitezke.

Herriko Udalen Izendegia bildüman, Ipar Euskal Herriko üdal- / herri-izenak arautü dütü (eüskal izena, izen ofiziala erdaraz, herritar-izena eta non diren lürraldearena edo esküaldearena). Züberoakoak 92. (1998) eta 99. (1998) arauetan finkatürük izan ziren eta hor bildürük dira berriz. *Euskal Herriko Ibaiak* izentegian, Euskal Herriko 414 ibai nausiren izenak bildürük dira. Horien artean, iparraldekoak deitu den “Lapurdi-ko kostaldean itsasoratzen diren ibaiak” zerrendan bildürük dira eta 91 dira (2014: 39-42). Horietan Züberoakoak 17 dira, *Ühaitza, Aphanize, Aphura, Gesalea, Latsübi, Laubiraze, Zürkhatsegi*, etabarrekin.

Üngürütto honen ürrentzeko, galto bat: Euskaltzaindiak Jean-Louis Davanten libürü hau argitarazten dü. Zerentako? Euskara batuan ez da idatzirik. Zeren eta, betidanik, Akademiak eüskalkiez izkiribatürük diren libürüak eta esküizkribüak publikatzen beitütü, eüskararen altxorreko parte beitira. Hona Euskaltzaindiak bere bildüma ezbardinetan azken hamar urte hauetan xiberotarrez publikatü dütüan libürüak:

2010, Jüje Etxebarne, *Gramatika Emendakinak. Züberoako euskaraz.*

2011, Junes Casenave-Harigile, *Xiberoko Antzertia edo Pastoralá.*

2011, Txomin Peillen, *Egiategiren filosofo hüskaldunaren ekbeia (bigarren liburukia).*

2013, J.B. Coyos, *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri - Gure Herria aldizkarian (1924-1939).*

2019, Jakes Sarraillet, *Janpierra Lexardoarteren bizitza edo Basabürüaren trajeria.*

Esküetan düzüna, Jean-Louis Davanten *Ozaze Jaurgainean – Jean de Jaurgainen Züberoa Herriko kontaira poetiko zombait*, azkena da.

Bena orai Jean-Louisen lüinari jarraik gitean.

Jean-Baptiste *Battittu* Coyos
eüskaltzaina

I. Nor zen Jean de Jurgain



Jean de Jurgain (1842-1920) adinean aitzina joanik
(Argazkia: Wikipedia)

Jean de Jurgain Ozaze Jurgainean sortü zen 1842ko azaroaren 16an, eta Lapurdiko Ziburun zentü 1920ko martxoaren 17an. Jurgaineko familia, azkenealat apal eroria, lehenago azkar izanik zen, bereziki XVI. mentean, Maria Jurgain horko alaba gazteña bere ama alargün-tsak ezkontarazi züalarik Atharratzeko Lüküz jaun handi eta aberatsarekin. Mariaren eta ondoko hüllanen berri xeheak emaiten deizkü idazleak heben aipatüren eta ützülıren düdan libürükakako hirugerren zatian, *Atharratze jauregiko anderea* deitüan.

Gure süjetak anairik ez eta hiru arreba zütüan, eta bat txipirik galdü züan. Jurgainea etxe noblea zen, eta noblezia bere jabeari emaiten zeion, Züberoako eta Eüskal Herri osoko legez: heben ez züntüan odolak aitorren seme egiten, bena etxeak. Jurgainea ez zen etxe aberatsa, etxalte handi baten bürü, eta ber gisa hortakoak ziren Züberoako aristokrata haboroxeen hontarzünak, laborantxatik bizitzeko doia.

Etsenplützat, ikertüko dügün libürükkan, Bereterretxen kantorearen ondotik, Jaurgainek kontatzen deikü I495eko agorrilaren lauean, Agaramontar eta Beaumontarren basa-gerlen kariaia, zer agitü zitzairen Onizepe Karrerako aita-semeer, bordalte batetan idiekin lür ützültzen ari zirelarik, eta mitilik ez dü han aipü; ikus daite etxe noble hortakoak laborari ez aberatsak zirela, etxaltea xüxenka egarten züenak beren eskülanez.

Ber denboran Züberoako jaunttoak epaile ziren aldizka Lextarreko jüstizia kortean, eta gainera armen zerbütxüa zor zeioen beren jaunari, lehenik Züberoako jaun bizkonteari, hori desagertü baiko I307 urtetik Akitaniako düke ingelesari, I449tik Bearno-Foixeko jaunari, I5I2tik Frantziako erregeari, nausi horrek gerlialako deitzen zütüalarik.

Frantziako Iraültzak I789an bi kargü horik kentü zeitzen, bai eta beste bizipide berezi zonbait, hala nola eiharetako mozkinak. Hortik mente erdi baten bürüko gure süjetaren aita ezin bizian agitü zen, etxea saldü behar üken züan I850 altean. Familiaren hazteko, emaztea eta haurrak herrian ützirik, Aljeriatat joan zen eta koloniako administrazio-nean sartürik, laster hil zen, I853ko urtarilan. Alargüntsa hurrekin Izuran plantatü zen, eta gero Garrüzen. Hor semea Larramendy erretrarekin paper zaharren ikertzen hasiko da, eta gisa horrez historiazale ofizioaren ikasten. Eskola maila hon bati esker, kasetari, literatüra-kritikari eta historialari lanetan sartüko da denborarekin.

I870eko gerlan parte hartü züan Frantziako armadan alemanen aitzia. I872an Parisen kokatü zen eta batetik idazteari eman kaseta andana batetan, bestetik artxiben musurkatzeari. Laster hirugerren Karlistadaren kariaia (I872-I876), Nafarroalat joan zen Pariseko kaseta handi batentako berriemaile. Iruñea / Pamplonako artxibak ikertü zütüan I875, I876, eta geroxeago I89I urteetan.

Holaz egiazko historialari bilakatü zen, bereziki genealogian eta heraldikan jakintsün elkiz. Eüskal Herriko zazpi lürralde historikoen erredolak bildü omen zütüan. Züberoako lehoa Oier III azken bizkonteari hartü zeion. Honek agertü züan bereziki I274ko agorrilaren 27an Iruñea / Pamplonan, Nafarroako hamabi bürüzagien jüntan sinatü züan

paper ofizial baten zolan. Bilküra hortan erregea gobernüan ürgazten züen hamabi «errikonbre» delakoek Joana erregiña txipiari adineala heltü arte aterbetüko züan haurrabe / tütoretzat Monteagudoko jauna haütatü zeioen. Lehoaren ikurra Baskoniako printzeak Züberoako lehen bizkonteari eman zeion apentziala 1023an, izentatü züalarik, baita ber gisan eta ber urtean Antso Handia Nafarroako erregeak Lapurdikoari.

Jaurgainek aldizkari andana batetan parte hartü züan bere lümaz, eta zonbait aldiz bürüzagi lanetan ere: *Revue du Béarn et du Pays Basque*, *Revue de Gascogne*, *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes*, *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne*, *La Gazette de France*, *RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos)*...

Monarkista zen, eta kasetetan ideia hori oihüstatzen züan. Ber ildotik, erreprotxatzen zaio handikiez baizik ez idaztea, jente xehea bazter ütüz. Alde batetik kritika xüxena zait: Züberokoa beste noble txipi elibatek bezala, bere gradoa gora ezarten dü, baita hanitx aipatzen, züberotar patriotisma franko «chauvin» bati lotüz. Bena beste zonbaitek ez bezala, Eüskal Herri osoala hedatzen dü Belako zaldünaren ondotik, harek 1850 urte üngürüan *Histoire des Basques* bat esküizkiribüz hontü beitzüan, eta Zazpiak Bat lemari bidea zabaltü erranaldi honez: «*On divise les Basques en sept pays ou provinces*».

Gaineala handiez edo handi direla uste düenez idaztea zinez aisa da, izkiribü hanitx ützi beitüe, bereziki beren bürüez eta familiez. Txipiek aldiz berant arte beren berri güti eman düe paperean. Horien historiaz arrenküratü nahi düanak izigarriko lana hartü behar dü paper zahar ikertzen, eta lehenik xerkatzen, apezetxeetan, merietan, leheneko kasetetan, notarien bülegoetan, departamentüko artxibetan, Baionakoetan, Iruñekoetan, Parisekoetan, eta beste ...

Dena dela, uste düet kasü hontan, beste güzietan bezala, obra bere aitatik bereizi behar dügüla. Jaurgainen obra hor dago, joria, bere gora-beherekin eta hon-gaitzekin: iker dezagün hozki, eta xüxen delarik balia, sortü düan gizonaz sobera axolatü gabe. Bibliografia nasaia dü. Idazlanik famatüenak: *La Vasconie*, *Arnaud d'Oihenart et sa famille*, *Les capitaines-châtelains de Mauléon*, eta lantüko dügün *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule*.

Hanitx idatzi dü frantsesez, haatik eüskaraz ere trebe zela erakutsi dü bere ützülpenez eta eüskal literatürako kritikez. Eskualzaleen Biltzarreko lehendakari / president izan da 1907-1908 urteetan, Arturo Campionen ondotik eta Georges Lacomberen aitzinetik.

Jaurgainen bizi pribatüaz bi hitz. Uste izan da donado bizi eta hil izan zela, eta ez da egia: 1879ko azaroaren seian ezkontü zen Parisen, 9. arrondizamentüko merian andere Léontine-Anastasie Touffu, Seine-et-Marne departamentüko laborari alabarekin. Hamahiru urtez algarrekin bizi izan ziren, emaztea 1892ko abentüan zentü arte. Haurrik ez züen üken, eta gisa hortan Jaurgainek bere ondoko eta seme hartü egin züan Arnaud d'Elissagaray depütatü ohia (Atharratze 1871-Baiona 1960), ofizialki 1920ko martxoaren 17an, bere hiltzeko egünean.




Argazkia (Renaud d'Elissagaray de Jaurgain familiatik, Joël Larroqueren arartez Jean de Jaurgainen hilarria (–hil harria–) Ziburuko hilerrian (–hil herrian–))

Arte hortan Eüskal Herrialat ützüli zen 1896an eta Maule-Lextarren plantatü alokairetiar ordüan berri zen elizatik hüllan. 1905ean Lextarre ützirik Ziburun bizitzera joan zen, eta han zentü arren 1920ko martxoaren 17an. Hanko hilerrian dü hilobia.

Eman berri dütüdan xehetarzün horietarik zombait zor deitzet Ikerzaleak taldeko Robert Elissondo eta Joel Larroque xiberotar historiazaleer. Eskerrak horier.

2. Baskonia herriaz bi hitz



La Vasconie libürüa

(Argazkia: Azkue Biblioteka eta Artxiboa, Juan Carlos Guerra funtsa, JCG-2746)

La Vasconie, Jurgainek Baskonia delako Eüskal Herri zaharraz 1898-1902 urteetan bi tomotan agertü züan obra famatüa. Paueko Princi Negue argitaletxeak berriz agertü dü 2004-2007 urteetan, bena hiru tomotan

Jurgain polemikazalea zen historiako geietan ere. Eztabada bat gogorra üken züan bereziki J.F. Bladé Gaskoiniako historialariarekin: nasaiki aipü dü *La Vasconie* libürüko lehen zatian. Geia zoin den: lehen Akitaniak, Zesarrek *La guerre des Gaules*, hots *Galietao gerla* libürüan aipatüak, bi mente eta erdi berantago Novempopulania deitüak, VII. mentean izen berri bat hartü züan, Baskonia, IX.ean Gaskonia bilakatüko zena. Izen kanbio hori nola esplika ? Jurgainek uste dü, Oihenarten ondotik, 600 urte üngürüan Nafarroako baskoiek Novempopulania

hartü züela, beren jentez bete, eta berriz eüskaldüntü. Hortako bi xiberothar historiazaleak abiatzen dira Grégoire Tourseko apezküpüaren izkribü hontarik:

Vascones vero, de montibus prorumpentes, in plana descendant, vineas agrosque depopulantes, domos tradentes incendio, nonnullos abducentes captivos cum pecoribus, contra quos saepius Austrovaldus Dux processit, sed parvam ultionem exegit ab eis.

Baskoiak aldiz, beren bortüetarik jauziz, ordokialat jaisten dira, mahastoi eta alorrak xehekiz, etxeer sü emanez, presonerak beren abereekin gibel ekarriz. Behin beno haborotan Austravaldo dükak ihiztekatü zütüan, bena haien aitzimendekü güti ardietsi züan.

Grégoirek ez dio baskoiak bortüez haraintitik jin zirenik, ez eta ordokiaz jabetürrik, hura beren jentez beterik, han egon zirenik. «Razzia» bat eginik, bazter elibat funditürrik, beren arrano habialat ützüli zirela hartü zütüen gizon eta kabalekin: hori da Tourseko apezküpüak diona. Ütürri mehe hortarik Oihenartek eta Jaurgainek itsaso zabal bat asmatü düe, denetara hedatü dena.

Bladék aitzitik dio Akitania zaharreko parte bat bederen eüskaldün egon zela erromanoen denboran, eta egia horren jakilegoa bat badügü, Ausonius / Ausone IV. menteko bordeles idazlearena: ama akiztarra beitzüan, poetak idazten dü IV. mente hortan Akizen, amamaren etxean, «iberieraz» ari zirela, hots baskoien hizkuntzan, arren euskaraz mintzo⁽⁹⁾.

Nafarroako baskoien ustezko inbasioneak bigerren hitz bat hartze dü: ez omen ziren Akitaniaren jentez betatzera mügatü; idazle zombaiten arabera, hiru Baskongadak ere, baita Errioxa, Gaztela zaharra Burgoserano eta Pirinioak Andorralano ber gisan eüskaldüntü zütüen. Hori da Hegoaldean, eta bereziki Espainian kurri dabilan ustekeria bat. Nafarrrak zombat ote ziren hainbesteko eremüaren hartzeko, betatzeko, eüskaldüntzeko ?

⁽⁹⁾ Ikus Pierre Narbaitz, 1975, *Le Matin basque ou Histoire ancienne du peuple vascon*. Librairie Guénégaud, Paris.

Beste ustekeria bat ere badabila mügaz haraintian, osoki beste püntakoa: eüskara Akitaniatik Hegoaldeat berantean joanik lizateke. Kate-xima hori egia zientifikotzat saldü berri deikü Euskal Telebistaren leiho-tik ostoz osto ikusi dügün «feuilleton» batek: eüskara Luchon aldetik hedatü lizateke, han gainti eüskal-erromatar idazkun hanitx beita, eta Eüskal Herrian gisala ez. Saltzale bere erranetan jakintsüak hebenkoak ahazten dütü: Atharratze Maidalenakoa, Hazparnekoa, Nafarroa Garaian Lergakoa... Topet-Etxahunek zioan bezala: «Hüllantxago, mer-kexago, olo franko Barkoxen...»

Dena dela, Oihenarten eta Jaurgainen ustea baztertzen düe oraiko historiazaleek, Bladéri arrazu emanez. Novempopulaniaren izen berri-tzea beste gisaz argitü behar da. Apentziala Nafarroako baskoien fama handiari esker agitü zen, eüskaldün ezagüenenak zirelako. Ber gisan XVI. mentean eüskaldün güziak «Biscayen / Vizcaino» deitü zütüen, bereziki frantses eta espainol idazleek.

Cervantesek aipü dü «un Vizcaino de Vergara», hiri hori Gipuzkoan zela bazakikealarik. Frantses Xabierrekoak dio: «la mia (lengua es la) vizcaina». Eta de Thou frantses bidajantak idazten dü Joanes Leizarrag-ak Testamentü Berria ützüli düala «en langue biscayenne».

Auzi hori ümur honean ürrantzeko, basa etsenplüni bat: 1944ko agorrilan Xiberoko makiak jaitsi beitziren Arbaila bortütik eta Barkoxe aldeko mendietarik Mauleko eta gero Atharratzeko alemanen aitzi, erran-ten ote dügü xiberotarrek, Nafarroatik jinik, Xiberoa inbaditü züela, konkistatü, jentestatü, holaz eüskaldüntü ? Azken püntü hori phürü egia balitz ! Bena noiz arte eüskaldünek beste nonbaitik jin beharko dügü ? Noiz arte gure herrian arrotz eta inbadizale izanen gira ?

Bestalde jakin dezagün Baskoniak zer lekü ederra düan gure histo-rian, bereziki Iparraldetik, heben bizi beitziren, Aturri bazterrean, Novempopulaniako bürüzagien ondotik, Baskoniako dükak, bi mente eta erdiz *Franc* erregeer bühürtü zirenak, artetarik haien indar handiogo-aren aitzinean erdi plegatüz, sekülan ez osoki etsitüz, ahal bezain sarri berriz oldartüz, beti arrahasiz. Azkenean, 850 urte altean, agertü eta

jeiki ziren Baskoniako printzeak, beren gain jarri zirenak, Xarles Bürüsoil edo Kaskopelatarri bürüz, frankoekiko müga Garona ibai / ühaitzean finkatüz. Horiekin eüskaldüenen indar nausia Iparraldetik egon zen XI. mentealano, hor Hegoaldealat igaran beitzen gure printze horien askazia zen Antso Handia Nafarroako erregeari esker. Haatik mila bat urtez Iparraldea eüskaldüenen historiako lehen herrokan egonik zen, lehenik Novempopulaniarekin, gero Baskoniako dükekin, azkenean Baskonia / Gaskoniako printze subiranoekin.

3. Literatūra-kritikaria

Jean de Jaurgain zena Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakari izan zen. Haatik ihoiz euskaraz idatzi ote dü ? Ikerketa franko egin dü Züberoako historiaz, orokorkiago Baskoniakoaz, eta haiez izkiribatü frantsesez. Eüskal literatürüz arrenküratü da, idazle famatü elibat eta haien obrak aipatüz, haatik frantsesez: Bernat Etchepare (1), Leizarraga (2), Oihenart (3) eta Tartas (4).

1 – Bernat Etcheparez: «Segün Jaurgain, citado por Urquijo, debia de ser de Sarrasquette, aldea de Bussunarits-Sarrasquette...» - Villasante, *Historia de la literatura vasca*, 36, 52. or.

2 – Leizarragaz: «Le Nouveau Testament de Lissarrague», *RIEV*, I, 288; id. Liçarrague, prêtre, *RIEV*, II, 601. - Villasante, 43, 55-56. or.

3 – Oihenartez: «Arnaud d'Oihenart et sa famille», *Revue de Béarn, Navarre et Lannes* (1885). Villasante, 86, p. 93. - *Refranes: ...* «Parece que se sirvió de colaboradores o de colecciones parciales, entre las cuales una pudo ser la de Sauguis, descubierta por Jaurgain y editada por Urquijo en la RIEV. Beltran de Sauguis fue un caballero hugonote consejero de Navarra, poeta vasco (cuya obra poética se ha perdido) y autor de una collección de refranes vascos. Murio hacia 1627. Oihenart estaba emparentado con él por parte de su mujer.», Villasante, 82, 89. or.


Oihenartek Zalgiz ospatzen du bere soneto bakoitxean, *Hamalaurkuna* delakoan, «erramu-boneta» eskainiz «Zalgiz Eskal Poeta» handiari.

4 – Tartasez: «Jean de Tartas», *RIEV*, I, 25. Villasante, 86, 93. or.

Bestalde sei eüskal kantore zaharren testüak agertü dütü eta frantsesez argitü *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* libürükkan, hots *Züberoa*

Herriko kontaira poetiko zombait delakoan. Gaurko grafian emanen dütüt, eta hona lehenik sei horien zerrenda:

- *Urrutiako anderia* - Ürrütiako anderea
- *Bereterretchen khantoria* - Bereterretxen kantorea
- *Atharratze jauregiko anderia* - Atharratze jauregiko anderea
- *Egun bereko alarguntsa* - Egün berreko alargüntsa
- *Mus de Sarri* - Musde Sarri
- *Arbotiko prima eijerra* - Arbotiko prima eijerra.



Quelques légendes poétiques du Pays de Soule libürüta
(C. Lacour argitaletxea)

(Argazkia: Azkue Biblioteka eta Artxiboa, Bibliotekako Artxibo Orokorra, 248. Egileak R.M. Azkueri bere eskuz eskainitako alea)

Libürüxka hori Jaurgainek agertü züan 1899 urtean, Vienne departamentüko Ligugé hirian.

4. Sei kontaira poetiko horien aurkezpena

Lehenik libürüxka batetan agertü zütüan 1899 urtean, Vienne departamentüko Ligugé herrian. Ber urtean idazlan hori beste idazle andana batenekin sartü zen *La tradition au Pays Basque* libürü gotorreen: horko 598 ostoaldeetarik 49 betatzen dütü Jaurgainen delakoak. Libürüa Elkar etxeak berriz argitaratü dü 1982 urtean, Pierre Lafitte euskaltzain idazle famatüaren sar-hitz batekin, eta hona zer dion Jaurgainen idazlan hortaz:

Jean de Jaurgain a eu l'idée de chercher dans l'histoire locale l'origine de quelques légendes du Pays de Soule. Il a surtout tenté d'identifier les personnages, sans nécessairement prouver les faits qui leur étaient attribués. Il est clair par exemple que le thème du miracle qui sauve une innocente en changeant le contenu de son tablier est archi-connu (cf. Elizabeth de Hongrie ou Germaine de Pibrac). Un souletin l'a attribué à une dame de Ruthie, ce qui a intéressé notre généalogiste. De même il arrive à dater entre 1431 et 1449 l'assassinat de Bertereche dans l'ambiance des haines criminelles entre Gramontais et Luxetins. «La dame du château de Tardets» est un poème qui déplore un mariage forcé, thème très courant dans beaucoup de chansons européennes; l'image des deux citrons dorés est connue même en grec; le carillon au départ de la belle existe dans une chanson bretonne; le dernier couplet rappelle l'Emilia navarraise. Jaurgain a découvert à qui on a appliqué ces lieux communs avec habileté. De même il a prouvé que «la veuve du jour même» n'était autre que Gabrielle de Loïteguy dont le mari mourut le 8 juillet 1613, le jour même de son mariage. Quant au dernier couple c'est une réminiscence d'une chanson catalane racontant un fait analogue. Quant à «Mus de Sarri», Jaurgain nous le fait bien connaître, mais pas son éloquente «palombe». Quant à l'épithalame d'Arbouet, nous apprenons l'identité des deux heureux époux sans histoire.

I – **Ürrütiako anderea** egün oroz etxerik elkitzen da, zare handi bat bürüan. Norat ari da, eta zertara doa ? Senarra jelosten zaio, hots mesfidatzen, eta laster bekaizten ere: maitale batengana joaiten zitak prefosta; gaizo ni, zer adarrak ! Behin bidean baratzen dü eta ... Segidaren jakiteko, ez dügü kantoreala joaita bezalakorik.

Ürrütia Altzürüküko jauregia zen, orai meria da, üdaletxea, herriko etxea. Horko familiak historian barna gizon famatürrik eman dü, bereziki XVI. mentean Peirot, François Ier / Frantses I.aren üngürüan kargü handirik bete züana. *Ürrütiako Peirot* trajeria hontü deio Niko Etxart herritar kantari ezagünak, hots eüskal rockaren aitak, eta herriak antzes-tü 2002ko üdan, euriak bi aldiz epantxatü ondoan.

Ürrütiako anderea Urdiñarbe Ahetzeko alaba zen. Etxe hori, lehenago noblea, Muskildirako bide bazterretik hüllan dago, azken patarraren hegian, esküin aldetik. Aisa ediren eta ikus daite: horren aitzinean daude Chistera ostatü / jatetxe ezagüna eta departamentüko «Centre ovin» delako ardi hazkuntzako mintegia, bereziki marro / aharzartz haütagia

2 – **Bereterretxen kantorea** Jaurgainek kokatzen dü eüskaldün jaun-
nen arteko basa-gerla zibil andana lüze baten beitan. Bi alderdi etsaitan
biltzen ziren: alde batetik Agaramontarrak, bestetik Lüküztarrak,
berantean Beaumontarrak deitürrik. Ikus dezagün ahal bezain llabürki
zer dagoen bi deitüra horien gibeletik.

Agaramontarrak eta Beaumontarrak (Agaramontesak eta Beaumontesak)

Abizenetarik has gitean.

- Gramont / Agaramont, Bidaxuneko jaunen etxea, ordüan Amikuzen zagoana.
- Beaumont, Nafarroa Garaiko jaun elibat, bereziki biga, aita-semek, XV. mentean Mauleko gaztelü zaharrean ondozka kapitain-

gaztelüzain egon zirenak, Akitaniako dük ingelesaren zerbütüko. Bigerrena, Lerineko jaun kontea, Bereterretxen kantoreak aipatzen düana. Lüküzeko andere batekin ezkontürik, Lüküztiarren alderdia manatüko dü, eta denbora batez horren ondokoek halaber.

Abizen horien gibeletik, jaunen arteko basa-gerla zibil lüzeak borogatzen dütüğü. Ordü hartan arruntak ziren: Kürütxaden bulkatzeko arrazu bat izan ziratekean. Heben aipatüak Amikuzeko bi jauregiren artean hasi ziren, eta ürrentü ere: bata Gramont / Agaramont etxea zen, bestea Lüküze (Luxe). Artean agertü ziren Beaumontarrak, Lüküztarren askazi eta büri.

Basa-gerlak noiz hasi ziren ? Paper zaharretan lehen aipamena 1316koa dugü. Zeren güdüka horik ? Ez dakigü. Estakürü güziak hon ziren beti arrahasteko. Kasik hiru mentez iraün züen, Henri IV.aren denboralano (1316tik gütienez – 1587ala). Funtsezko arrazua ene ustez, bi etxe horik Amiküzeko bi oilarrak zirela, gero Baxenabarre osoko eta Xiberokoak ere: bat sobera, bereziki lehiakidearentzat.

1370an güdükak Amikuzerik Xiberoala hedatü ziren, Lüküzeko primak Atharrazzeko primüa esposatü züalarik. Ondorioz Lüküzeko jauna üsü atharraztar date. 1384ean Nafarroako erregea Iruñerik Donajuane-ra (Donibane Garazira) horra da, jaunen artean bakea egin nahiz. Hortako 1385ean San(t) Antoniko bakearen baseliza, ermita, txapela, kape-ra eraikarazten dü Muskildiko mendi gainean, arren Xiberoko lürrean: müga mendiaz harantiko zolan dago. Nafarroako erregeek Xiberoarekin harreman bereziak etxeki zütüen Erdi Aro / (*Moyen Age*) güzian (1023-1449).

San(t) Antoniko gertakizün horren ohoretan, Etxahun-Irurik hortü züan kantore bat, «Agur Agaramontesak, Agur ere Beaumontesak, agur Sant Antoni !». Haatik badakigü Beaumontes / Beaumontarren izena berantago agertüko dela güdüka horietan.

Gerla zibila Nafarroa Garaila hedatzen da XV. mente erditsütan. Blanca erregiña hil izan da 1444ean. Nafarroako prima zen, arren subiranoa, eta senarra errege kontsortea baizik ez. Alargüntü baiko tronüa semeari

ützi behar zeion, hots Bianako printzeari, bena beretzat etxeke züan. Semeak gerla egin zeion, galdü züan, eta gazterik hil zen, bular-erraietako mine-tik apentziala. Beaumontarrek Biana süstengi züen, Agaramontarrek aldiz aita. Gero Agaramontarrak Nafarroako erregeer etxeke egonen dira, Beaumontarrak aldiz Gaztela / Castillakoen alde jarriko: Fernando Katolika Nafarroa Garaiaz jabetzen lagüntüko düe 1512an.

Nafarroako erregeak iparraldean kokatüko dira orozbakoz, lehenik Ortesen, gero Pauen, Biarnoko jaun beitira ber denboran. Agaramontarrak alde dütüe arren, eta Lüküztarrak aitzi eta kontre. 1524ean Henri II.a Albret erregeak Lüküzeko jauregia deseginarazten dü, haatik horren balia jabeari pakatzea hitzemanetz.

XVI. menteko 2. partean, Errelijioneko gerletan, Gramont kalbinisten bürü jarri zen, Lüküz katolikoen aitzindari, Domintxaineko eta Baigorri Etxauzeko jaunekin. Azkenean Lüküzek galdü züan 1587an, eta Otsagabian egon behar üken sei urtez. Azkenean bakea ekarri züan Henri IV.ak.

Berteretxea izeneko etxe noble parrasta bat bazen Xiberoko herri ezbardinetan, eta Jaurgainek aipatzen dütü, ikusiko dügün bezala. Kantorekoa larraintarra zen, eta bi pastoral üken dütü, lehena Etxahun Irurik hontüa, 1958ko üdan antzeztürik Maulen eta Ligin, bigerrena 2005ean, Berzaitzen lümatik, Ligi-Athereiko jenteek beren herrian emanik.

Bestalde frantses armadak Maule hartzean 1449 urtean, Jaurgainek püntü bat ez dü aipatzen: Nafarroako errege Juan gaztelü zaharra zaintü nahiz jin zela, haatik arrakastarik gabe gibel joan.

Batetik etsaiak beno soldado gütiago züan ontsattoz ere, bestetik etsaien aitzindaria bere sühia züan, alabaren senarra, Gaston IV de Foix, Bearnoko jauna eta Charles VII Frantziako erregearen ordaria Guiena / Akitanian, horko armaden bürüa. Horren biltzera lehiatü zen Juan erregea, bena sühiak ihardetsi zeion Frantziako erregeari zin eginik, hitzemaneta bete behar züala. Arren Nafarroako erregea Iruñerat ützüli zen, eta laster de Beaumont jaun kontea ere, Mauleko gaztelüa ützirik.

3 – **Atharratze jauregian** kantorea Agaramontar eta Beaumontarren historian kokatzen da erdiz-erdi. Süjetak dütü Lüküzeko jauna eta

Ozaze Jaurgaineko alaba Maria, horren emazte gazteña. Errelijioneko gerletan, jaun hori katolikoan aitzindaria zen Joana Albretekoaren aitzi. Hura, Henri III Nafarroako eta gero Henri IV Frantziako erregegeiaren ama zen, Bearnoko andere subiranoa eta Nafarroako erregina, praktikan Baxenabarre / Nafarroa Beherekoa, Nafarroa Garaia Gaztelako erregeak armez harturik 1512an, eta 1515ean bere erresumari loturik. Bera kalbinista eginik, Joanak errelijione katolikoa debetatü züan, Bearnon kausitü ere, haatik ez Xiberoan eta Baxenabarren, nahiz gerla irabazi züan Agaramonteko jaunaren lagüngoarekin, hura Eüskal Herriko kalbinisten bürü jarri beitzen nonbaitik ere Lüküztarren aitzi.

Züberoa Frantziako erregearen peko zen 1512 urtetik, 1449ko konkistaren ondotik 63 urtez Bearnoko jaunaren esküetan egon ondoan. Bena Joanaren bi etxalteen artean zerratürrik zagoan, üngüratürrik, frantsesez *enclavée*, eta hor andere azkarrak etxen bezala erauntsi züan, Maule bi aldiz porrokiz, 103 eliza errez Xiberoan eta Baxenabarren, gure lürralde txipian bereziki Santa Grazikoa: beharrik ez beitzen sühoi! Herri hortako lürren parte handi bat hartü züan ekialdetik, bere oiha-nekin, eliza kantüxkalano, eta Bearnori lotü orozbakoz.

Henri errege berriak bakea ekarri bazüan ere, Atharratzeko jauna bere hontarzünen parte handi bat galdürrik baratü zen, zorren pean itorrik, eta gisa horrez Maria Jurgain laster alargüntsa zateana ere bai. Atharratze-Sorholüzek ohoratü zütüan 1997an *Atharratze jauregian* pastoralaz, Berzaitzen lümatik.

4 – **Egün berreko alargüntsa** nor zen argitzen deikü Jaurgainek, paper zaharrak ikertzez. Egiazko istoria txipi bat ikusten dügü hor, eta ez asmakizünezko lejenda edo kontaira bat. Historia handian kokatzen da historiazale horren lanari esker, olerkia gozatzerä eman ondoan. Literatürak orokorki historiari egiten deion ekarpenaren etsenplü bat zait, halako leinürü eta keinü adierazle bat.

Etsenplü handiägo baten aipatzeko, XIX. menteko jentarte kapitalistaren ezagützeko, bi autore nausi badütügü: Karl Marx pefosta, eta

frantsesa irakurtzen ahal dügünek Honoré de Balzac eleberri idazle handia ere bai. Nik ja Balzac aisago hartzen düt eta hobeki gozatzen, hain xüxen ere literatüran ari delakoz, eta ez jakitate zorrotz eta hotzean.

5 – **Musde Sarri** kantorea hortü züanak bazüan ezpiritü, ai zer kokillota ! Eta ürzo lüma gris gaixoak apez ospetsü gormanta zoin eijerki barurik ützi züan, ber-bera mahainean, ala ohean ote ?

Istoria txostakagarri horren kariaia, berriz agerian dago Iruriko jaun konte horien indarra Xiberoan, eta gisala Baxenabarren ere, Jutsin, Bithiriñan ... Famatüena izan zen lehena, de Tréville kapitaina, Alexandre Dumas semeren *Les trois mousquetaires* eleberri famatüari esker, eta haren ondotik Etxahun-Irurik ere ospatü züan 1966an bere herrian eta Maulen *Le comte de Tréville* trajeriaz, zoin ere 1992 ber leküetan antzeztü züan Xiberoko Zohardia alkarteak.


Lehenik *Matalaz* trajerian aipatürrik züan, 1955ean Eskiulan eta 1964ean Parisen. Eiki, Iruriko jaun kontearen faltaz piztü zen *Matalas afera*, jaun horren bazterrik gabeko anbizioneak Xiberotarrak kexarazi beitzütüan, bereziki Mauleko gaztelü zaharra bere lür eta potere güziekin Louis XIII erregeari erosi zeionean, Xiberoko bizkonteek sekülan üken ez zütüen ahalak ere beretüz. Arrazu osoz Etxahunek antzerkian *türk* delako gorrien aitzindari ezari züan.

6 – **Arbotiko prima eijerra** misteriorik gabeko istoria baten ekarle dügü: eztei jakin elibaten berri emaiten deikü hanitx eijerki. Jaurgainek hiru bertset agertzen deizkü, bena beste ütürri elibatetarik beste biga ezagützen dütügü, Jaurgainen lehen bien ondotik eta azkenaren aitzine-tik doatzanak:

Igaran apirilaren bürüan
 Armadaren erdian
 Zü züntüdan bihotzean, armak oro esküan
 Present ezpittitüan, manka besoen artean,
 manka besoen artean.

Jauna maite banaizü
 Erraiten düzün bezala
 Kita ezazü, kita ezazü erregeren zerbütüa
 Eta maita herria, üken dezadan plazera
 üken dezadan plazera.

Aho-mihizko üsantxa eta tradizionearen arabera, kantore hori Beñat Mardo barkoxtar koblakariak hontü zükean. Pastoral elibatetan kantatü da, bereziki *Abadia Ürrüstoi* trajerian, 1990ean Maulen, eta *Xabakoa* delakoan, 2010ean Barkoxen.



La Tradition au Pays Basque libürüa
 (Argazkia: Azkue Biblioteka eta Artxiboa,
 Juan Carlos Guerra funtsa, 2009)

Goatzan orai libürüaren ützülpeneala. Jaurgainen hoin-oharrak ez dütüt ützüli, bena horien berri emaiten düt lan honen azken zatian, Jaurgainek agertü kantoreen ütürriak deitüan. Bestalde kantoreetako püntüazionea soiltzen eta sinpletzen düt, oraiko üsantxaren arabera. Eta kantore zahar horik grafia berrian ezarten dütüt.

Aldiz frantses edo gaskoin zaharrea agertü diren gütünak beren hartan üzten dütüt, eüskaraz ützüli gabe, ordüko hizkuntza horien txestatzeko gisan. Ützüli gabe halaber Pierre Lafittek *La tradition au Pays Basque* libürüaren edizione berrian Jaurgainen lanaz egiten düan frantsesezko aipamena.

La tradition au Pays Basque libürüa 1899an agertü zen. Artikükü eta mintzaldi andana batez eginik da. Horien artean dago Jaurgainen *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule* libürüxkako idazkia. *La tradition* delakoa Elkar argitaletxeak berriz agertü dü 1982 urtean.

5. Züberoa Herriko kontaira poetiko zonbait

idazlea Jean de Jaurgain

I. *Urrutiako anderia - Ürrütiako anderea*

Ahetzeko anderea
Ürrütian korpitzez
Hor dizü bere bürüa,
Kanpoan da bihotzez.

Nor dü bere maitea
Nahi nüke egia.
Jinkoak nahi badü,
Hiltzea ükenen dü.

Gure jaun Ürrütia
Kexüan beti zira
Erradazüt zertako,
Ni ez nüzü kanpoko.

Hürrünt zite niganik
Ez dit zure beharrik
Bazoaza kanpora
Eni adar biltzera.

Jauna, holako gaüzak
Ahetzeko andereak
Ez ditizü ikasi
Hen doazü ihesi.

Ele hoiak ahotik
Jalkitzen zirelarik,
Ürrütiak bilotik
Terresta dü ebili.

Jinkoa, zer bizia
Oi Jaun Ürrütia,
Ni Ahetzeko etxean
Nündüzün bai bakean.

Honat jin behar nizün
Ene zorrea züzün
Bihozmin ükeiteko
Zure kexarazteko.

Ogen gabe zü beti
Mintzo zitzait gogorki
Otoi, zure begiak
Ütz ditzala kexüak.

Goizean goizik jeikirik,
Ogi opilak eginik
Ahetzeko anderea
Lehia dün handia.

Zareta(ra) bat bürüan
Kanporat jalkitzean
Mus d'Ürrütiak züan
Bai baratü bidean.

Non zabilta hain goizik
Jauregia hüstürik
Galtatzen d(ei)o Ürrütik
Begiak oldartürik.

Jauna, ikusiren düzü
 Nahi balin badüzü
 Orai norat nabilan
 Zareta(ra) hau бүrian.

Jente eskeleari
 Emaiteko sokorri
 Madama Ürrütiak
 Hartü zütüan bideak.

Opilez zarea beitzen
 Beterik jente prauben
 Ürrütiak zarean
 Esküa sartü züan.

Opilak ordü hartan
 Jin ziren hallikotan
 Ürrütiak ber(e)hala
 Uste tronpatü zela.

Ehülearen etxera
 Zoaza bilberaztera ?
 Jauna, ikusten düzü...
 Orai zük badakizü...

Parka izadazüt arren
 Bekaitz ez nüzü izanen
 Emazte hon zirela
 Orai badit nik proba.

Franko zahar eta bitxi den idazki honen oritzapena galdüxerik beita Züberoa / Xiberoko herrietan, hanitx iruski begiratü deikü Francisque-Michel jaunak, 1857an bildüz eta argitaratüz. Ortografiako kanbio txipiñi elibat baizik ez deitzot ekarten; bena Ürrütiako etxekandereen abi-

zena xüxentzen düt, zeren aipatüko dütüdan dokümentüen arabera, ahomihizko üsantxak Ahetzeko andereaz Hauzeko anderea egin dü prefosta azkenean.

Pariseko, Gaskoniako eta eüskal lürraldeetako artxibetan egin dütüdan ikertzen kariaala, zorte honez Hauze, Ürrütia eta Ahetzeko hiru xiberotar etxeez aski xehetarzün bildü düt, lehen bien artean ezkontze herexa mikorik ediren gabe.

Hauzeko jaunak ezagützen dütüt Erramun-Arñoz geroztik; 1315ean bizi zen, eta horren ondoregoa Agaramont etxean itzali zen hamalaugerren mente ürrentzealat, Hauze eta Olhaibiko jauregi eta jabegoetako prima zen Graziana ezkontü zelarik Berdot delako Bernat Agaramonteko zaldünarekin, 1407ko apirilaren 28ko idazki batek dakarren bezala.

Altzürükü Ürrütiako andereen zerrenda berriz, osorik badüt Maria etxe hortako primatik hasirik, zoinek 1400 urte altean esposatü züan Züharako Andres, Zühara Casenave / Etxeberriko jauna. Horien seme gehiena, Menauton, Altzürükü Ürrütiako jauna Xiberoko aitoren seme jüje-epaile bezala agertzen da 1453 eta 1464 urteen arteko izkiribü hanitxetan; ondotiko dokümentü batek erakasten deikü hortik laster hiltzeko mementoan Maule-Berroetako Jondane Johane elizari ondore bat egin zeiola.

Apentziala Ürrütiko Menauton hori dügü kantore hontako süjeta; hogeï urteak zütüan doi-doia bere aitak, 1422 altean, ezkontarazi züalarik Ahetze Domekako alabarekin: honek anaia züan musde Arnauton Ahetzekoa, zaldüna, Peirede – geroztik Urdiñarbe – Ahetzeko eta Muskildi Erbizeko jauna.

Ezkontze hortarik sortü ziren haur elibat, bereziki: Arnauton, Ürrütiako jauna; Menaud Ürrütiakoa, Maltako zaldüna, Berroeta eta Irisarriko jauna 1455etik 1472ala; Gillen Ürrütiakoa, ezkontüa, gero apez eta Larüntzeko erretor, Xiberon, 1482an; Joanes Ürrütiakoa, elizako arrandadüna, Altzürüküküko erretor eta Züharako bikari 1483tik 1488ala; Graziana Ürrütiakoa, Irabarne Jauregiberriko Menautoxe aitor

semearen emaztea; eta Maria Altzürükü-Ürrütiakoa, Züharakoa ere deitüa, ondoko hiru jaun hoiien lagün egin zena kontratüz: 1.ik I444 altean Behaskane Salako Beltran jaunarekin; 2.ik I456ko arramaiatzaren 28ko hitzarmenez Unaso Angelüko Peirotekin, zoinek ordeinatü züan I459ko agorrilaren 27an; 3.ik azkenean I460ko agorrilaren bosteko hitzarmenez Joanes Motakoa, Donapaleu Salako jaun ordariarekin.

I463an, ürrietako idazki batetan agertzen dira süjetaren familiako lau belaünaldi; hortan Arnauton, Altzürükü Ürrütiako nausi gazteak dio lehenago, hogeï urteak bete berrian, Zühara Casenave / Etxeberriko Andresen , eta horren seme Menauton, Ürrütiako jabea zen bere aitaren baimenarekin, bere arreba Graziana, Irabarne Jauregiberriko Menautoxeren emazteari, eta haren ondoko lejitimoer, bere züzen güziak ützi, saldü eta eman zeitzela Zühara Casenave / Etxeberriko etxe, lekü, eginbide, afios, eihera, detxima, bazkagia, hur, ola eta beste jabegoen gain. Orai, berrogei bat urteetan, Arnauton agertzen da notari baten aitzinean Petiri-Arño bere seme gehien eta primüarekin. Biek, Züharako Andres eta Ürrütiako Menauton, beren aita, aitaita eta arraitaitaren berme eta baimenarekin, Ürrütiako Grazianari aitzinetik eginiko emaitza eta saltzapena baieztatzen dütüe kontratü berri batez.

Emaztearen arartez Zühara Casenave / Etxeberriko jabe bilakatürik, Jauregiberriko Menautoxek 45 florinetako zorra bazeiola Arnauton Altzürükü Ürrütiako etxeko jaun gazteari aitortü züan I464ko urtarilaren 26an, eta, ber egünean, Arnauton Urdiñarbe Ahetzeko jaunaren, eta Johanto Jutsi eta Gotaine Salako Arbide semearen aitzinean, bi küinatek zin egin züen laster segürtatüko züela Petiri-Arño, Menautoxeren seme eta Zühara Casenave / Etxeberriko primüaren ezkontza, küzüina lehena züan Domenge, Arnautonen alabarekin.

Ondokoak badütüalarik orano Züberoatik kanpo, Ürrütia etxeak eman üken dü erregeren soldado eta jendarma hanitx, apezküpü eta ofizier famatürik ere.

Peirot Ürrütiakoa, zaldüna, Xiberoan Ürrütiako jauna, halaber Bloiseko diosesan Chevernykoa, Petiri-Arñoen eta Navaillesko Margarita-

ren semea, 1542ko ürrietaren seian zentüa, Ahetzeko Domengeren arrarrasemea zen. 1507an honartüa erregearen etxeko ehün aitoren semeen saldoan, eta 1527an izentatüa Baionako gaztelü berriko kapitain eta Mauleko gaztelüzain eta Züberoa Herriko gobernari, ber denboran izan zen erregearen zamaltegi txipiko zamalzain, ihiztekako büüorde eta Saint-Germain-en-Laye herriko kapitain. 1533ko apirilaren hama-laeuan, Frantses lehenak 20.000 libera eman zeitzon bere zerbütüen saritzat, ezkontide hon baten edireiten lagüntzeko. Horri zor deiogü orai Altzürüküko apezetxea den Ürrütia jauregiko parte zaharrenaren berritzea.

Ürrütia Bernat, Peiroten lloba, apeztü zen eta Frantses lehenaren omonier izan, 1542an. 1550eko maiatzaren lauean, erregearen aholkü-lari zen eta haren omonier lehena, Pontlevoyko abade eta Udiñarbeko büüzagi. Frantziako omonier handi izentatürik 1552ko üztaila lehene-an, korteko apezküpü egin züan Jülio II Aita Saintüak, Henri II.ak gal-tatü bezala, eta hil zen 1556ko maiatzaren 3In.

Atharratzeko Johane, zaldüna, Altzürükü Ürrütia, Chevernyko eta Lüküze Arangoizeko jauna, erregearen etxeko aitoren seme arrunta, amaren aldetiko osaba Peirot Ürrütia koren ondoko sartü zen 1542an Mauleko kapitain gaztelüzain kargüan, eta Ürrütia etxe hontarzüne-tan, izena eta armarria hartüz geroz.

Ürrütia Petiri, teologian doktore, Urdatx / Santa Graziko abade 1677an eta Commingesko artxidiakre handi 1680an, Rieuxko apezkü-pü eginik izan zen 1705ean; 1709an hil zen.

Azkenik – eta besterik aipatü gabe – Xarles-Frantses Ürrütia, 1741an zentüa, Cambresisko errejimentüan kolonel-ordari zen.

II. *Bereterretchen khantoria* - Bereterretxen kantorea

Haltzak ez dü bihotzik
 Ez gaztanberak ezürrik
 Ez nüan uste erraiten züela aitonen semeek gezürrik.

Andozeko ibarra
 Ala ibar lüzea
 Hiruretan ebaki zeitan armarik gabe bihotza.

Bereterretxek oheti(k)
 Neskatoari eztiki
 «Abil eta so eginezan ageri denez gizonik.»

Neskatoak ber(e)hala
 Ikusi züan bezala
 Hiru dozena bazabiltzala leiho batetik bestera.

Bereterretxek leihoti(k)
 Jaun konteari goraintzi
 Ehün behi bazereitzola beren zezena ondoti(k).

Jaun konteak ber(e)hala
 Traidore batek bezala
 «Bereterretx aigü bortala, ützüliren hiz ber(e)hala.»

«Ama, indazüt atorra
 Mentüraz sekülakoa
 Bizi denak orit ükenen dü Bazko biharamena.»

Marisantzen lasterra
 Bosmendietan behera
 Lakarri Büztanobian sartü da bi belaünak herresta.

«Büztanobi gaztea
 Ene anaie maitea
 Hitzaz honik ez balinbada, ene semea joan da.»

«Arreba, ago isilik
Ez otoi egin nigarririk,
Hire semea bizi balin bada, mentüraz Mauleala da.»

Marisantzen lasterra
Jaun kontearen bortala
«Ai, ei eta, Jauna, non düzüe ene seme galanta ?»

«Hik bahiena semerik
Bereterretxez besterik ?
Ezpeldoï altean dün hilik, abil eraikan bizirik !»

Ezpeldoïko jenteak
Ala sendimentü gabeak,
Hila hain hüllan üken eta, deüs ere ez zakienak

Ezpeldoïko alaba
Margarita deitzen da,
Bereterretxen odoletik ahürka biltzen ari da.

Ezpeldoïko bukata
Ala bukata ederra
Bereterretxen atorretarik hiru dozena ümen da.

Kantore miragarri hori entzün behar da botz beteka gaüaz, gure bortüetan, senditzeko zoin eder, malenkoniko eta bitxi den, müsikako notek ezin beitüe holako dohainik agertü.

Eüskal kontaira zaharretan gure izate nazionalaren adierazgarri osonetarik dügü. Jules Sallaberry ene adiskide honak pentsü züan, bere kantore bildüma argitaratü züalarik, Bereterretxen ehailea Iruriko jaun bat zela, erregearen ordaria Mauleko gaztelü zaharreetan; bena Iruriko konterria 1643an sortüririk da, eta familia hortako lehen kapitain gaztelüzaina, Armand-Jean Peyre, Iruriko jaun eta Moutier-en-Derreko apate laikoa, Züberoako gobernari kargüan egon zen 1676tik 1681eala.

Gure kantoreak egindüra hanitxez zaharragoa dü, eta oritarazten deikün gertakari latza hamazazpigerren mentea beno lehen agitü zen prefosta. Horren proba segurra ekarten deit Bereterretxen amaren ize-nak, hots *Marisantz* Bütanobirenak, hanitx arrunta beitzen hamabosge-rren menteko Xiberoan, orano erabilia hamaseigerreneko lehen erdian, eta gero laster galdüa.

Alta, 1646aren aitzinetik, Mauleko kapitain gaztelüzainen zerren-dan jaun kontea deitzen ahal diren bi gizon baizik ez düit ikusten: Foi-xeko Jean, Candeleko kontea, eta Beaumonteko Luis, Lerineko kontea, Gixuneko eta Curtoneko barua, Nafarroako kontestablea; bena lehena baztertü behar da, bere kargüaren hartzera jiteko aizararik ez beitzüan ediren: gainera, Lerineko konteak Maulen manatzen züan 1434tik, Gloucesterreko dükaren ordari bezala, Jean de Foixen aitzinetik, eta leküa ez züan ützen. Beaumonteko jauna Aragoiko Juan Nafarroako erregearen küinata zen, eta Henri VI, Ingalaterrako erregeak, bere hone-tan ez beitzüan hertsatü behar, Mauleko gaztelüaren gozamina ützi zeion 1447ko maiatzaren 16ko gütünez, berak zor zeitzon mila libera esterlingeko zorra kitatü arte, soma hori Beaumontek egari beitzüan defentsalako torre bat eraikiz eta beste obra elibat eginez. 1448an Gillen Beaumonteko bastartek, Mauleko kapitain gaztelüzain izenbürüa egarten züan holaxe: «*cappitain et garde deu castet de Mauleon per lo tres honorable et potent senhor mossenhor Loys de Beaumont, condestable de Navarre, senhor et ministre deu castet et castelanie de Mauleon et de la vicomtat de Sole per nostre tres souveran senhor lo rey d'Angleterre et de France*».

Geroztik, Henri VI horrek Frantziako errege titülüa ez züan lüzaz egari, zeren frantsesek Akitaniaren konkista hasi züen hain xüxen Mau-leko gaztelütik, hau esküalatüz 1449kobürüila / setemerez.

En ce dict mois, - kontatzen dü Jean Chartier garaiko idazleak, - les comtes de Foix et d'Estrac, les vicomtes de Lioumaigne et de Lautrec et plusieurs autres barons, chevaliers et escuyers des pays de Foix, de Comminges, d'Estrac, de Bigorre et de Bearn, jusques au nombre de six à sept cents lances et dix mil arbalétriers se partiren des pays de Bearn et entrèrent au pays de Basque où a ville et chastel nommée Mauléon de Sole, laquelle ledict comte de Foix fist assieger de tous

costez. Et quand ceux deladicte ville se virent enfermez, doubtant estre prins d'assault, se rendirent par composition et mirent ledict comte de Foix dedens. Les Anglois tindrent ledict chastel dont estoit garde le connestable de Navarre. Ils le pouvoient bien tenir, car c'est le plus fort chastel de Guyenne, assis sur un moult hault rocq. Ledit comte fut accertené par ceux deladicte ville qu'il y avoit pou vivres dedens. Si y mistle siege de toutes parts.»

Lerineko konteak, segür izanez Nafarroako erregeak ez züala batere sokorritüko, gaztelüa zabaltü züan, horko güdarientzat bizia salbü ardietsiz, eta Iruñera ützüli zen.

Arren Bereterretxen kantorea hamabosgerren menteko lehen erdian sortü zen, 1434 eta 1449 urteen artean, zeren segür ere Bütanobiko Marisantzen semea hor ehorik izan zen, Lerineko kontüaren manüz, - nafartarra zen hori eta beraz eüskaldüna, - Mauleko gaztelüan manatzzen züalarik.

Xiberoa ordü hartan aharra güne odoltsü bat zen agaramontar eta lüküztar talde etsaien artean, mente batez gain beitzüan aharra horrek bortüaz honaintiko Eüskal Herri güzia bi alderdi etsaitan zatitzen; Beaumonteko Luisek Lüküzeko jaunaren alderdia ürgeizten züan, askazi hüllana beitzüan, eta Bereterretxen heriotza gerla zibil hortako mila gertakarien artean dago.

Paueko jauregian 1427ko azaroaren 13an sinatüriko gütün ofiizialez Jean, Foix eta Bigorrako konte, Bearnoko bizkonteak Meriteineko Gillen-Arnautoni manatzzen deio gizon andana bat bahi eta eraman dezan Ortes, Salbaterra, Bellocq, Pau eta Montanerreko gaztelüetara, bakea hautse düelakoz, hamar urtetarako eginik züelarik, alderdien potere osoekin, alde batetik Agaramonteko jauna eta Graxia Agaramont, Hauze eta Olhaibiko jaunaren, bestetik Arño-Otso Lüküzeko jauna eta Domintxaineko jaunaren artean. Manatzzen dü atxilotzea nonahi, salbü lekü sakratü eta errelijioneoetan, eta hortako behar badü etxerik desegin edo erre, zauri eta hilik eragin, konteak horiez kito egiten dü.

Bi alderdiek kideak bazütüen, ez bakoizki Bearnon, bena ere Nafarroan, Gipuzkoan eta Akitanian. 1431ko barantailaren 26an Bordelen, Frantses Agaramonteko jaunak eta Graxia Agaramont Hauzeko jaunak

tratü bat sinatzen düe Bertrand Monferrand eta Langoiraneko jauna eta François de Montferrand Uza eta Belineko jaunarekin, zointan azken biek lehen bien beren gerletan lagüntzea hitzemaiten düe denen aitz, salbü Ingalaterrako erregearen, Foix eta Longuevilleko jaunaren eta Bucheko jaunaren aitz, hogeita bost güdari bildüz, zaldihondün eta ontsa bezti, eta beren kostüz horien eramaitea Garamont eta Hauzeko jaunen gerla güneetara, galtoa üken eta bost asteren bürüko. Eta azken horiek jente haboro behar badüe, Montferrandeko Bertrand eta François jaunek hitzemaiten deie ahal oroz lagüntzea, beren korpitzez eta hontarzünez. Uzako jaunaren eta Graxia Agaramonten arteko beste hitzarmen batez, lehenak Hauzeko jaunari hogeita bost zaldün eta berrehün baleztari hitzemaiten deitzo, galtoa üken eta hilabeteren bürüko, eta haboro behar bada, egin ahala eginen dü.

Agaramonteko Frantsesek Foix eta Bearnoko bizkontearen lagüngo ere ardietsi züan: jaun horrek 1434ko eta 1436ko gütünez hitzeman zeion lagüntzea eta sokorritzea denen aitz, salbü Ingalaterrako eta Nafarroako erregeen aitz, galtatüko zeion aldikal.

Hortik laster Bertrand, Montferrand eta Langoiraneko jaunak Agaramonteko ariarekin züan hitzarmena bazter ützi züan, eta Lüküzeko Joana esposatü züan, zoinen aita zen Joanes lehena Lüküze, Oztibarre, Landibarre, Atharratze, Ahatsa eta beste jaurerri elibatetako barua, Nafarroako errikonbrea eta Bianako printzesaren gelazaina, baita Peralatko Mariarena. Ezkontzako hitzarmena egin züen Bergarako Joanes, Lapurdiko notariaren aitzinean, 1446ko apirilaren seian, eta Joanes Lüküzekoak hitzemaniko dotearen berme ezari zütüan bere ariako bi aitoren seme, Arnauton Beltzuntzeko jauna eta Arnauton Armendaritzeko jauna.

Lüküzeko jaunak aski aldeko eta aliatü bazüan bere etsaiaren aldeko jori eta azkarrer bürü emaiteko, zeren 1448ko bürüila / setemeren 22an Mendikotan idatzi eta Bearnoko zenexalaren esküetan ütziriko gütünez, Frantses Agaramonteko jaunari eta horren ariari segürtatzen deie hamabost egünez ez deiela ogen mikorik eginen.

Bi urte berantago, gerla piztū zelarik On Carlos erregearen seme, Bianako printzearen eta horren aita Juan Aragoikoaren artean, honek Nafarroako koroha beretako etxekitzen beitzüan Blanca erregiña zentüz geroztik, Lüküz eta Beaumont ariak On Carlosen alte jarri ziren, aldiz Agaramontarrak eta Navarra-Cortezak erregearen alte agertü. Güdükak hasi ziren I450eko bürüila / setemerez, eta Joanes Lüküzek Donibane Garazi bertan hartü züan, Baxenabarreko gotorlekü nausia.

Agaramontar eta Lüküztarren aharra hain zen hedatü Nafarroa Beherean non bi alderdietako bürüak, On Frantses Agaramonteko jaun txit noblea eta On Arño-Gillen Domintxaineko jauna, On Johane II Lüküzeko jaun gazteñiaren haurrabea biltzen diren bi arietako beste aitoren seme eta jente hon elibatekin I453ko üztailaren bian, astelehen, Sorhabil deitü soro batetan, sei ordezkari izentatüz, hiru alderdi bakoitxetik, Amikuzeko *Anaidi* baten barneko legeen idazteko, egün oroz agerian edo gordaxka Agaramont eta Lüküzeko arien artean egiten diren ehaite, ohointza eta beste gaizkien ekürüarazteko, jüstiziak ezin beitätü gaztigatü, printze jaun subirano horien bereizgoa dela kausa.

Ordezkar horik Amendüzeko Jondane Johane Batista elizan biltzen dira ber hilabeteko 30ean, eta ondoko delibero hoik finkatzen dütüe:

Bakea berritzen da bi arien artean. *Anaidi* hontan sartü den edonork gaizkiegi-leak atxilotü beharko dütü eta erregeren jüstiziari eman, hala beharrean *ab crit et biaffore et orde sonade, repic de campane*, hots oihüz, hel deiez, orda eta zeinü jo zalhez, bestela sei Aragoiko florin honen isuna lüke *Anaidiko* kargen honetan.

Gero gaztigü elibat hitzartzen dira herritar eta arrotz hanitxen aitz, ohointzatik bizi beitera, erregearen edo printzearen alderdikoak direlako estakürüan.

Jente hon batek, hots noble eta poteretsü batek edo beste norbaitek, jaun horien batarzünean parte har ez lezakeanak, desafia, zaurit, mehatxa edo laidosta baletza delibero horien betarazteko kargüan daudenak, jaun horietako baten ordezkoak jauki beharko dütü erregearen edo jaunaren edozoin auzitegiren aitzinean, bi alderdien kostüz, plainizalea osoki ordaritü arte.

Krima edo ohointza bat eginik, norbait Lüküze edo Agaramonteko baruen lürretara ihes joaiten bada, hor jaukitzen ahalko da, jaurerri horietako lehentazün, eskübide eta libertateak bortxatü gabe eta, bahitü ondoan, horko kapitain gatelüzain, bailet edo giltzainari aurkeztüko da, kargüdün horri jüstiziaren lagüntzea galtatüz, eta ükatzen badü, baruak edo horren zürkaintzak gaizkiegilea gaztigatü beharko dü kasüaren arabera, krima batez delarik jüstizia kriminalean, eta kalte zibil batez delarik, plainizalearen doblezka ordaritzera kondenatüz.

Delibero horien iraüpena bi jaunen gomendüan üzten da. Agi baledi erregeak edo printzeak behar den edo ez den zerbait mana dezan, bi jaunak manü hortaz algarrekin hitzart leizte ihardesteko.

Agaramonteko jaunak beretzat eta bere alderdiarentzat, Domintxaineko jaunak beretzat, gehi Graxia Lüküz, Lapurdi Senpereko jaunak, eta ber Domintxaineko jaunak On Johane Lüküzeko jaun gazteñiaren haurrabe bezala, gainera Pées de Peralta Iruñeko apezküpü jaunaren ordezkoko bezala, hau ere jaun gazteñiaren haurrabe izanez amaren aldetik, delibero horier beren bermea ekarri beharko düe, baita horien betatzea zin egin, bestela ohorea galdürrik, Morlaaseko bi mila liberako isunaren pakatzea lükeie.

Bena alderdi horien historiak hürrünegi neramake, arren dokümentü bakant elibaten aipatzera mügatüko niz, probatzen beitüe Bereterretxek egari züan itxesa bezalakoak zoin arruntak ziren Xiberoan, hamabosgerren mentean.

1478ko apirilaren 14ko inkesta baten zatiak erraiten deikü Altzaiko aitoren seme bat, Athagiko Menauton, ataki eta zauritü züela Gillento, Altzai Irigaraiko semeak, eta Menautoxe, Gorritepeko jaunaren semeak, beren askazi elibat lagün, *los totz abilhats d'armes, como con valesstes, lances, spades et broques*. Gizon horik gero Altzabebetiko elizan sartü ziren, eta hor egon indarrean, zabaltzea ükatüz, noiz eta, Mauleko gaztelüzainaren manüz, Basabürüko baileta heltü zen haien bahitzera. Sainte-Colomeko Girauton, gobernariaren ordariak, berak jin behar üken züan, baleztari elibatekin, eta ordüan errendatü ziren; bena askazi elibat igitü zeitzen, eta

ordariak Irigaraiko Gillento eta Gorritepeko Menautoxe libre ützi zütüan, haien berme jarririk Petiri-Arño Altzai Irigaraiko jauna, eta Zihigako Bereterretxe jauna, haatik ondoko maiatzaren bian Lextarreko kortean agertzeko manüarekin; bena horrat arte Züberoatik kanpo egoitera behartü zütüan, 25 zilar piezatako isunaren mehatxüpean. Lüküzeko jaunak otoiztürük, ordariak epea lüzatü züan arramaiatz leheneala.

1447ko abentüaren 22an Oier, Agaramonteko jaunak, Bidaxünerik idazten deio Beaumonteko Joana andere, kontestablearen eta Nafarroako Joanaren alabari, Joanes II Lüküzeko jaunaren alargüntsaren alabari beraz, plainü honekin: Phebus errege zenak bi arien artean eginiko bake iraunkorraren despit, Domintxaineko jaunaren lagünek Bernat Arrozpide eho düela, eta geroztik gaizki hanitx egin.

Züek ere entzün düzüe nik uste, gehitzen dü, Domintxaintiar horik, Lüküz ariako amiküztar lagünekin, oihan batetan jarri direla, ene ariakoa den Zohotarik hüllan, eta hortik beren geziak urtukiz, Arboti Altzarrek ene lagünaren seme bat eho düela. Eta haboro eginen züen Jinkoaren lagüngoia eta gure ihardespen hona gabe. Zük edo zure ariak gaizki horien gaztigatzeari pentsatü düzüenik ez da erraiten entzün, eta nahiz lüzatü düdan eta horiez mendekürük hartzea debetatü, plainüz horra zaiztaner ez dakit zer ihardets. Otoizten zütüt arren, eta hala beharrean zinki galtzatzen deizüt ogendantak gaztiga detzatün. Zure arrapostü hona egürükitzen dit.

1486ko martxoan, Katalina Castetpugonekoak, Graxia Agaramont zaldün eta Nafarroako errikonbre, Hauze, Olhaibi, Montori / Berorize, Onizepeko, Sohüta Sala eta abarreko jaunaren alargüntsak, Hauze edo Montori / Berorizerik gütüin bat idatzi zeion bere seme Oier, Agaramonteko jaunari, eta hona horren funtsa:

Atharratze ariako aitoren semeek Agaramonteko etxekanderea zinez otoizten züen bere semeari mezülari bat igor lezaion bakea egin lezan eta beren ariako seme galdü elibatek eginiko ehaite eta beste itxesen ondotik orano agitzen ahal ziren gaizkiak ekürüaraz letzan.

Horien otoitzeala, Lüküzeko etxekanderea Xiberoalat jin zen eta, martxoaren 25ean, Atharratze ariako aitoren semeak eta alkarteak bildürük, bakearen alte zin eginarazi zeien.

Lüküzeko jaunari mintzatüren zeitzon, ez bazütüan begietan ütken, beren alderdiak Hauze eta Olhaibiko arier eginiko kalte zonbaiten ondorioz. Eta, lotsa horrekin, Agaramonteko etxekandereari dei egin deie artekari hoberena zelakoan.

Oier Agaramontek amari ihardetsi zeion:

Madone, Tant humilementz cum puse recomandi a votre bone grace, et vos plassi saver que ey recebudes las lettres que per lo rector de Montori present portador vos ha plagut me scrivre et trametre, la una de vos a mi et l'autre deus gentiushomis et companhoos deu linadge de Tardetz a vos dirigide, laquoau dite lettre portabe credence, et, segont ledit rector en vertut dequere credenseme ha dit et espliat, semble que los dessus dits ayen deliberat dessi abant de voler vivre en patz: et me desplatz que totz temps davant daquestes hores ne han agut tal prepaus et deliberacion, car si adagossen los cors, las animas et las bees de edz et de nos ne valeren betcop mes que non fen.

Madone, vos sabetz que ayssi cum la mayson de Luexe a tres linadges so es assaber Luexe, Ahatze et Tardetz, que parellementz jo ey Gramont, Aus et Olhaiby en losquaus ha Dieu mercer betcop de gentiuzhomis et d'autres gens de bee, ab losquoaus suy deliberat de comunicar so qui a vos a plagut me ascrivre et mandar, car nia plusors que an recebut dampnage et no sere pas ben feyt a mi de estar tan presumptuos que de mi medix responossi adaqueste materi que es de tan gran importanssa. Per laquoau cause, Madone, et per complir votre mandament suy deliberat congregar et assembler mons dits linadges et les far venir a Gramont. Et per so que bonement, lo linadge de Aus schetz gran fatigue no y poyre venir, me semblere fosse bon que donassen scharge et poder a dus gentiuhomis et a dus deu comun per venir part dessa a la assemblade, au jorn que per mi lor sera feyt assabut, et me semblere (sauban votre meilleur aupinio) que los gentiushomis per lo linadge d'Aus fossen Beleterrech et Monguillot d'Arhansette, et pareillement qu ni vieyra autant deu linadge d'Olhavy, ausquoals je farey sabidors.

Et ab tant, Madone, pregui Diu que vos doni so que votre cor desire.

De Bardos, lo darrer jor deu mes de martz.»

I486ko abentüaren 2Jean, Bidaxunen, Oier Agaramonte, Hauze, Olhaibi, Hastingues eta abarreko jaunak, Frantziako erregearen aholkulari eta gelazain, Baiona hiriko auzapez eta kapitain denak, bere ahalak emaiten dütü musde Arhantzetako Gixarnaut, Hauze eta Montoriko erretora-

ri, Maulen bizi den Barhenako Menaut «*bachelier ès arts*» delakoari, baita Erramonet Mendikota Berteretxeko jaunari, JohaÑe Sarrikotapeko jaunari eta Johanto Adauseko jaunari, haren izenean agertzeko Jean de Miglos, Nafarroako erregiñak igorten düanari Agaramont eta Lüküzeko jaunen eta arien artean tregoa baten ezartera Xiberoan, jaun horiek berek finkatüko düen epealako, tregoa hori hauts lezakeienen aitzi gaztigüen erabakitzera, eta azkenean, hitzartüriko berezilarien erraneala, Lüküze eta Agaramonteko bi alderdien artean eginik izan diren kalteen ordariaraztera.

Urte zonbait berantago Oier Agaramontek idazki bat agertü beitzüan Lüküztiarrek Hauzeko ariari eginiko ehaite eta ohointzez, hor ogendant handienak agertzen dira bi aitoren seme, Petirisantz, Lexantzü Ürrütigoitiko eta Altzabeheti Gorritepeko jauna, eta Arnauton, Barkoxeko apate laikoa. Lüküztiarren artean aipü dira gaineala Ziboze Domekeko «potestat» delakoa, Zühara Casenave / Etxeberriko jauna, Ezpeizeko bastartak, Astüeko Casenave / Etxeberri, Petiri-Año, Zühara Lapitzeko jauna, eta beste...

I493 urtean – dio, - Lüküzeko jaunaren mitilak eta Atharratze ariako kideak gaüaz-gaü Ligira joan ziren eta Ligiko Johaneren etxen sartü, alegia jan eta edatera. Hor, Johaneren logelan bortxaka sartüz, ohean eho züen, ez züalarik seküla deüs egin, eta kobesatzeko aldirik ützi gabe.

Gero jeiki ziren, armak hartüririk, Atharratzeko lüküztar etxearen zaintzalea, eta erran delako Petirisantz, Ürrütigoitiko jauna, Atharratze ariako beste aitoren seme eta lagün elibatekin, eta Athereira lasterregin züen arpillatzeko eta ehaiteko. Ligi eta Hauzekoak Athereikoen ürgeiztera jinik, Etxegorren ligiarra ehorik izan zen.

Ondotik, delako Ürrütigoiti eta horren lagün elibat Athereira ütülü ziren eta iratze epaiten ari zen ligiar menüx bat eho züen.

Gero Salako Johane delakoa eta Ürrütigoiti, beren lagünekin, Ligiko basabazterreal joan ziren lasterka eta herri hortako gizon bat, Pées Tornü deitüa, baratü züen; eta eho züen, kobesioa galtatzen züalarik, eta hortan Atharratzeko agotak *ly fe las gorges*.

Ondotik jin zen Lüküzeko jauna bere aitoren seme eta lagünekin eta hor Petiri, Hauze Arhauspeko jauna eho züen, kobesioa galtatzen züalarik.

Gero goian aipatüriko Ürrütigoiti eta Barkoxeko apatea, Gillento Irurikoa, Gillen-Arño, Ozaze Domekeko *potestat* delakoa, eta Zühara Casenave / Etxe-berriko *potestat* delako, Atharratze ariako kasik 300 lagünekin, lasterka joan ziren *à treyt pensat* Liginagalano eta han Gillen-Arño, Latsagako jauna eho züen, ürrikirik gabe, iheri mündüan desgustik ez ogenik ez züalarik egin.

Egün haietarik batez Antso Arhantzetakoa, Lüküztiarrek Ligin eginiko gehikeriak ikusiz, Barkoxeko apatearen eta Ürrütigoiko jaunarengana joan zen gal-tatzera eia bakerik ez zenez ezarten ahal Lüküz eta Agaramont bi alderdien artean, eta mintzo zelarik ehorik izan zen Barkox eta Ürrütigoiti horien aitzinean, eta horien manüz.

Egün zonbaiten bürüan Barkoxeko apate hori Liginagala joan zen bere lagünekin, eta bere esküz eho züan Intzagorspeko Gixarnaut bat, Urdatxekoa (Santa Grazi).

Ondotik idazkiak abere eta müble ebasteak xeheki kontatzen dütü eta azkenean 1492ko agorrilaren zazpian, Ezpeizeko bastartek eta horien lagünek Montori / Berorizen eho zütüela Barrenako Johane, eiheratik horra zena, eta Johanto Arrozpide, bere nausia zaintzen züana.

Gixarnaut Ohitx notariaren 1494ko ürrietaren biko ageri batetarik ikusten da ehaite, basakeria eta bortizkeria elibat agitürük berriki eta egünez egün berritürük, Landetako zenexalaren ordaria Züberoa herrialat jin zela ordenaren eta zaingoaren azkartzera; bahiarazi zütüan Joha-ñe, Ezpeizeko jauna, eta Tristan, Zalgize Apatiako jauna, eta ützi zeitzon Pierris Gros Mauleko ordezkarri ohoragarriari, gaztelüko presontegian zerrarazteko, ontsa zaintzea manatüz. Bena Pierris Grosek, Rouergue lürrealdealat joaitea erabakirik Arpajoneko jaunarengana, nausia beitzüan, Ezpeizeko eta Zalgizeko jaunak ez zütüan lüzazago etxeki nahi üken. Gogoan hartüz zenexalaren ordari hura Akizerat ützüli zela berari beste argitarzünik eman gabe, baita Joha-ñe Ezpeizeko jaunari eta Tristan Zalgizeko jaunari kausitü nahiz aitoren seme zirelakoan, libre ützi zütüan bermepéan. Arño Atharratz, Urdiñarbe Ahetzeko jaunak, Gillen-Arño, Jutsi Arbideko eta Gotaine Salako jaunak, Gillento, Lakarri Domekako jaunak eta Oier, Lixozeko eta Sarrikota Casenave / Etxe-berriko jaunak, laurak Lüküz alderdiko aitoren semeak, zin egin züen

Ezpeizeko eta Zalgizeko jaunak Mauleko gaztelüalat ützülaraziko zütüela galto üken eta hiru egünen bürüan, bestela zilar hon eta fizko ehün markeko isuna erregeari zor ükenez, beren korpitz eta hontarzü-nak hortara behartüz.

Ber egüneko ageri batez, Erramonet Mendikota Berteretxeko jaun ohoragarria, Agaramonten alderdiko aitoren semea, libratürrik izan zen ber baldintzetan, Mauleko oskigile bat eta barber bat ihardesle hartürrik.

Berteretxeko Erramonet horrek Mauleko gaztelüzainari aurkeztürri-ko eskari batek kontatzen dü nola horren semea eho züen Lüküztiarrek:

A vos Mossor lo cappitaine et governado de Solle, Expause et humilment remustre noble homme Ramonet, senhor de Berretereché de la parropie de Menditte, subget deu Rey nostre senhor, que pot aver ung an et miey o environ ung aperat Arnauton, abat de Barcuxs, lo senhor de Salaverri de Mendi, Chicot, filh deu tisner de Tardetz, Maititoa, sabeter deu loc de Tardetz, Johan de la Salle, lo maestrot de Pagolle...et autres lors complicitis et aliatz, no savem per quenh spirit sollicitatz, aben lor maubade intention en lors coradges, se transportan armatz et inbastonatz de lances, espades, balistes, broques eta autres invassibles armes, en la parropie de Menditte, a gueyt apens, et aqui rencontran ung aperat Pierres, filh deu medixs Ramonet, distan deugn treyt de baliste de la maison deudit Ramont, auquoal, sens luy aber cometut cause per que mes volen lor maubade intention meter a execution, quiaixi fin, lo donan plussors cops de treyt de baliste, lance et espade audit Pierres, desquoaus cops lodit Pierres es anat de vie a trespas, et so non obstant non estantz conentz deusdits cops audit Pierres, lo pilhan rauban et bajulan sa baliste, sint...aur et argent et autres causes que portabe suus; de laquoale mort, pillhories et raubatories deudit Pierres, son filh, sa enrer, luy dit Ramonet s'en thiese grebat, injuriat, et totalement dampnadiat recor...dabant vostre senhorie deusquoaus susdits murtris, pillhadors et raubadors, lodit Ramonet done per clamor et rencune criminousse tant force que pot, cum au cas se apparthiey, requerent vos placi far la justice au cas susdit pertinente...

Segida eta egüna ments dira, bena Berteretxeko Petiri I492ko arramaiatzaren 26tik landa ehorik izan zen, zeren egün hortan Akizen soldado zen, baleztari, Sarrikotako Johantorekin, hura jendarma, eta Ürrütiaiko Petiri-Arñorekin, halaber baleztaria, Agaramonteko jaunaren konpainian.

Aberats ez zatekean lüküztiar aitoren seme batek, alorra berak ützültzen züanak, Mendikota Berteretxeko jaunaren galtoari ützarriko lagüna ekarriko deio.

I495eko agorrilaren lauean, Arnautoxe, Onize Karrera etxe nobleko jauna, Mauleko gaztelü borda sargiala doa, Arpajoneko Guy jaun txit noble eta azkarraren aitzineala, jaun hori Züberoa herri eta bizkonterriko kapitain eta gobernaria beita, eta kontatzen deio düala bospasei hilabete igaranik, nonbait han, bordaltekto alorrean ützültzen ari zelarik idiekin, Gillen-Arño semea lagün, hara jin zeitzela Bernat, Etxarri Erretegiren semea, Gaxernaut, horren anaia, Bortiriko Arnautoxe, etxarriara hau ere, Gillen-Erramon, Sarrikotapeko Azkonen semea, Grazian, Bildozeke Garagarren (Gargatainen?) semea, Petiri, Billorohandi deitüa, bildoztarra hau ere, Grazian, Lextarreko Irigoienen semea, Mendikota Bohoxantzen bastarta, eta beste gizon bat, Montori / Berorizeko behizaina deitüa. Jin ziren maltzurki eta tzarki, ezpiritü gaixtoak akülatürrik eta bulkatürrik, Gillen -Arño semea eho züen, baita balezta eta arropak ebatsi, berak sekülan ez zütüalarik ofentsatü, ez egintzaz, ez hitzez. Arren Arnautoxe delakoak deiadar egiten dü eta jüstizia eskatzen aipatürriko ehaite eta ohointzez, galtatüz kapitain gaztelüzainari jünta dadin Guillaume de Chele, erregearen proküradorea, Gillen-Arño Irabarne Jauregiberriko Jaun ohogarriaren eta Onize Errekaltekto Menauten presentzian.

Mendikota Berterretxea etxe nobleaz gain, Züberoan baziren ber ize-neko baserri etxeak – izen hori *Berterereche* eta *Berreterereche* izkiribatü da hamazortzigerren mentealano – Larrainen, Lexantzün, Zihigan, Altzabehetin, Bildozen, eta abar... bena, üsantxaren arabera, Lorraine Berteretxekoa zen Lerineko kontearen biktima, gure kantoreak dakartzan argitarzün geografikoekin akortean.

Eiki, Bosmendieta bortüak Lorraine bereizten dü Lakarri herritik, zointan beitago Bützanobia etxea, eta Andozeko ibarra Larrainetik Ligeria doa. Azkenekorik, Ezpeldoia etxea Etxebarreko etxauetan dago, Athereik hüllan. Hor egün orano ageri da, basakurtean, harrizko kürütxe bat, Berteretx malerusa eho züen leküan berean.

III. Atharratze jauregiko anderia - Atharratze jauregiko anderea

Ozaze Jaurgainean bi zitroin doratü
Atharratzeko jaunak bata dü galtatü
Üken dü arrapostü ez direla hontü
Hontürik direnean batto ükenen dü.

Portaleala joan zite ahizpa maitea
Engoiti horra düzü Atharratzeko jauna
Otoi erran izozü ni eri nizala
Zazpi egün hoietan ohean nizala.

Bai bena ez nükezü hortan sinetsia
Hari erraiten badot zü eri zirela
Zazpi egün hoietan ohean zirela
Bera nahi dükezü zü ziren leküala.

Ahizpa jaunts ezazü arrauba xuria
Nik ere jauntsiren dit ene zaia berdea
Engoiti horra düzü zure senargeia
Botzik kita ezazü zure sor etxea.

Klara zoaza orai salako leihora
Iparr(a) ala hegoa denez jakitera
Iparra balin bada, goraintzi Salari
Ene korpitzaren xerka jin dadila sarri.

Ama joanen gira oro alkarreki
Etixerat jinen zira xangri handireki
Bihotza kargatürik, begiak buztirik
Eta zure alaba tonban ehortzirik.

Ozazeko zeinüak dü arrapikatzen
Jaurgainek(o) anderea herritik partitzen
Haren peko zaldia ürrez da zelatzen
Hanko txipi handiak beltzez dira beztitzen.

Atharratzeko hiri hiri ordoki
 Hur handi bat badizü alde bateti(k)
 Errege bidea erdi-erditi(k)
 Maria-Maidalena beste aldeti(k).

Ama saldü naizü biga bat bezala
 Bai eta desterratü, oi Espainiala
 Aita bizi üken banü, ama zü bezala
 Ez nündüzün ezkontüren Atharratze salala.

Atharratze jauregiko anderearen kontaira ederrak arrakasta handia dü orano bortüz honaintiko hiru eüskal lürraldeetan; Berteretxen kantore tristearekin üztarran ibil daite, bai poesiaz, bai müsikaz; bena lehen testüa zinez kanbiatü deio hiru mentez aho-mihizko üsantxak.

Batetik bestealako ibilaldi horietan, eta apentziala seküla lümaz finkatü ez den testü batetan bortxaz ere agitü diratekean nahasketengatik, denborarekin *Atharratz jauregian* kantatü da *Ozaze jauregian* zen leküan, Atharratzeko jaunaren emaztegeia, maitarzün etsipenez santa eгина – Xahoren hitzetan – *Santa Klara* deitü da, *andre Klara* ahizparen izena emanaz, eta azkenean gure süjetaren senarraz egin da Hongriako errege bat, edo Espainialat eraman zükean Ongriagarai bat.

Badü hogeita zazpi urte phürü balada inozent eta hunkigarri horrek lehentze deitü nündüala, eta horren argitzera lehiatü nintzan ene adiskide Jules Sallaberryren *Chants populaires* delako libürüaz izkiribatü nüan artikülü batetan: *Courrier de Bayonne* kasetari helarazi neion, epe baten-tzat eüskal olerkiez eta üsantxez ardüratzeko aizinaren galtzera nindoalarik.

Geroztik, abürümenka lüzexe zonbaitekin, irakurri berri dügün testüa den bezala berritü ahal üken nüan. Oso xüxen ote da? Hala dela üdüri zaizüenez ikus dirozüe ene ikasgeiaren hoinarrian dauden argibide eta dokümentüetarik.

Bai desterratü, oi Espainiala eta *Ez nündüzün ezkontüren Atharratze salala* bi neurtitz horik beti ber gisan kontatürük dira Xiberoan eta Baxenabarren

bildü dütüdan molde güzietan, Francisque-Michel jaunak agertü düan hartan bezala: arrapikatze horrek probatzen dü segürki neskatila gazte bat bere nahiaren aitzi ezkontarazirik izan zela Atharratzeko jaunari, eta gero Espainialat erbesteratürrik.

Hain xüxen – ikusiko dügün bezala, - Jaurgaineko Mariak hamazazpi urteak zütüan haboroenetik, esposatü züanean Xarles, Lüküze eta Atharratzeko barua, berrogeita hamar bat urte züana, eta hortarik asma dirogü senar gazteago bat nahiago zükeala, düda gabe kantoreak aipatzen düan Sala:

*Iparra balin bada, goraintzi Salari
Ene korpitzaren xerka jin dadila sarri.*

Senarrari jarraiki zitzaion bi urte berantago, harek Espainialat ihes egin behar üken züenean egoera franko latzetan.

Atharratzeko baruerria, Basabürüko zortzi parropia edeiten zütüana, hamahirugerren menteko lehen erditik Marsaneko bizkontetxearen adar gazte batena zen; horrek Atharratz izena hartü züan, haatik bere hastapenezko armarria etxekiz: *erronbo ürrekara eta gorria*, eta 1377an, musde Arño-Antso, Atharratze eta Ahatsako jauna, Nafarroako zaldüna eta errikonbrea, Lüküze etxeko hontarzünen jabegoan sartü zen, 1370 altean ezkontürrik Lüküzeko Doña Saora edo Saurina, Arño-Otsoa II jaunaren bigerren alabarekin, jaun güziz noble eta poteretsü hori Lüküze, Oztibarre eta Landibarreko jaun eta barua zelarik, baita Nafarroako zaldün eta errikonbre, gainera Xarles / Carlos II Gaiztoaren ahokülari eta gelazaina. Horren ondokoek Lüküze izena etxeki züen bere armarriarekin.

Joanes IV Lüküzeko baruaren eta Agaramonteko Isabelaren seme gehiena, Xarles Lüküz, Atharratzeko jauregian sortü zen 1535eko azaroaren zortzian eta aitaren segida hartü züan 1559ko üztailaren 26an. Baxenabartar eta xiberotar oldartüen бүрү jarri zen 1567an, Joana Albretekoak errelijione katolika bere Estatüetan debetatzen züan erabakia agertü züenean, eta bere hontarzünen parterik handiena jan züan higanoten kontreko gerla lüze batetan.

Alta fortuna hori gaitzekoa zen. Bere hontarzünen zonbaketa batean, Xarles Lüküzek sei edo zazpi baruerrri kontatzen dütü, baita jaurerri handi zonbait, jüstizia gora, ertaina eta apalaren jabeak. Berak aldarrikatzen dü Lüküze, Atharratze eta Ahatsako hiru arien bürüa dela, «eta hortik erran delako jaunak, beharrünez edo bere eta Etxearen ohorea zaintzeko, ehün aitoren seme bil litiro, denak Etxe horren aliatüak, eta bospasei mila gizon hoinkari, oro betidanik etxeakiak, nausigoa ederra beitzai. Gisa horrez Lüküzeko Etxeak, bere jabegoekin, gütienetik berrogei mila libera balio dü – arren lau ehün bat mila franko oraiko sosean, - odolaren legeak eta beste zügen hanitxak eden gabe.»

Idazki püblikoen arabera, Xarles Lüküz jaun gora eta poteretsüa da, barua, Lüküzeko subiranoa eta kontea, Oztibarre, Landibarre, Sainte-Livrade, Atharratze, Ahatsa, Eskiula eta beste lekü eta jaurerri elibatetako barua, erregearen ordenako zaldüna, horren ordenantzetako 50 jendarmaren kapitaina, Nafarroako mügan dauden kapitainen kolonela eta infanteriako errejimentü batetako güdaritegizaina, Mauleko kapitain gaztelüzaina eta Züberoaren gobernantzan erregearen ordari orokorra. Lehen ezteietan esposatü züan Bourgeko jauregian, Akitaniako zenexalgoan, 1564ko bürüila / setemere I.ean eginiko kontratüz, Saint-Gelais-Lezignemeko andere Claude, Louis de Saint-Gelais jaun gora eta poteretsüaren alaba, Louis hori zelarik Lansac, Samyn, Cornefou eta Vernoneko jauna, ordenako zaldüna, kontseilü pribatüan aholkülari, erregearen üsatü gelazaina, horren zaintzale berezia, ordenantzetako 50 jendarmaren kapitaina, geroztik Catherine de Medicis erregiñaren ohorezko zaldüna eta horren etxeko zaintzabürüa, Erroman enbaxadore, erregearen ostatüko ehün aitoreen semeen kapitaina eta Sant-Ezpiritüko zaldüna, aldiz Claude anderearen ama Jeanne de la Roche-Andry zena, aitaren lehen emaztea.

Claude de Saint-Gelais horren dotea 32.500 libera «tournois» dela-koetarik zen, eta soma horren berme Xarles Lüküzek ezari züan «Atharratzeko etxe, lür eta jaurerria, Züberoako bizkonterrian, bere jabegoako eta menpeko zortzi parropia eta herrixkarekin... jüstizia ertaineko zügen güziekin, Juspatronatus, legar orokor, afios, legar bereziekin etab...»

Atharratze, kasik mente erdi hartan, Lüküzeko baruen egoitza nau-sia zen. Joana Albretekoari idazten deion datarik gabeko gütün batetan, Xarles Lüküzek agertzen dü Carlos Bosgarrenaren aitziko gerla batetan, Nafarroako Henri II erregeak deliberatü züala Garrüzeko hiri eta jauregitik hüllan zen Lüküzeko jauregiaren deseginaraztea, kaltea ordaritzekotan. Erregeak, Lüküzeko jaunari zor zeion ordari sariaren finkatzeko epaile gisa izentatü zütüan de Miossen jauna, Foixeko zenexala, eta Abadiako Bernat, Nafarroako zigilüzaina, eta bi epaileak leküala joan ziren, berrogeita hamar urte gütün hori beno lehen, Joanes IV, Xarlesen aita, Lüküzeko jaun zelarik; bena horien txostena ez da edireiten. Arren Xarlesek erreğiñari galtatzen deio aditü elibati estimaraz dezan otoi Lüküzeko jaunek egari düen kaltea, eraikinak eta müble / altzari eder hanitx galdüz, eta bere mailari doakion egoitza baten eraikitzekoa eman diezon erresumako mozkin argienetarik.

Xarles Lüküzen lehen ezkontzatik sortü ziren bost alaba: Charlotte-Catherine; Valentine, 1604ko üztailaren 18tik landa ezkontü zena musde Corbaran de Morell d'Aubigny batekin; Claude, zoinek 1590eko abentüaren 15ean esposatü züan Don Diego de Frias y Salazar, Castilla / Gaztela Robresko jauna; Espérance, Philippe de Sus, Txütüxeko eta Saint-Germaineko jaunaren emaztea; eta Lucette de Luxe, Angoulemen Sainte Ausanieko andere abadea.

Alaba gehiena, Charlotte-Catherine, Lüküzeko kontesa subiranoa eta etxe hortako hontarzünen jabea primantxaz – Nafarroako legean, Züberoakoan bezala, familiaren segidalako lehen ezkontzako alaba bigerren ezkontzako semeari lehentzen zaio; bestalde Catherine de Medicis erreğiñaren ohorezko andere zen 1579an. Ezkontü zen 1593ko ürrietaren lauko kontratüz Louis de Montmorency jaunarekin, zoin ere beitzen Bouteville, Blaincourt eta beste güne zonbaitetako jaun, ordenako zaldün, erregearen aholküleri Estatü kontseilüan eta pribatüan, Senliseko gobernari eta Frantziako amiral ordari, eta horren ekarpenak Lüküze etxeko zorren betatzeko helbüriüa züan. Bena püntü hortan, Xarles Lüküzen esperantxak hilortü ziren, bere ordeinü / testamentüan segür-

tatzen düan bezala: «Nik diot eta ahozkatzen düt ene alaba Charlotte Catherine anderea ezkontü zenean de Montmorency Bouteville jaunarekin, erran eta segürtatü zeitadela Bouteville horrek soma serio bat ekarriko zeitala ene hontarzünen parte hon bat zorpetik elkitzeko, egari dütüdan nahaspuiletan eta nahigabeetan ützi behar üken beitütüt, eta gisa horrez ene beste beharrüner eta hurren eraikitzeakoer bürü emaiteko, eta hori ez da orano eginik izan. Arren nahi düt eta manatzen aipatü berri düdan ene ondoko horrek osoki beta detzan ene lehen eta bigarren ezkontzetako haurrentzat egin dütüdan ordeinüak, berak baldintza hortan baizik ez beitüke ondorea ükeiten eta esküalatzan ahal.

Lüküzeko barua alargün zen zombait urte hartan eta, erran düdan bezala, berrogeita bederatzü urteak beterik zütüan Jaurgaineko Maria gazteaz enjogitü zenean. Haren esküa galtatü züan, ardietsi, eta ezkontza ospatü züen 1584ean.

Hortik laster, beste nonbait kontatü dütüdan gertakizün politiko elibaten ondotik, Beltzuntzeko Joanes, Makeako bizkontea, Xarles Lüküzen arreba batekin ezkontürrik zena, eta Izpura Larreako Joanesen güdaritegiko aitzindaria jin ziren, Nafarroako erregearen alkabüzari eta hoinkari konpainia zombaiten bürüan, bikote berria bizi zen Mauleko gaztelüaren setiatzera. Lüküzek gizon güti baizik ez züan horien eretzean ezarteko; ikusiz ezin zela bühürtü, leküaren üztea kausitü züan 1587ko barantailaren bian, eta, higanotak aztaletik, Atharratzera ihes egin züan, eta hantik Espainialat igaran zen.

Xarles Otsagabian plantatü zen emaztearekin eta bere alteko zombaitekin. Hor agerian sinatzen dütü holaxek aipatzen düen idazki elibat: «el ilustrisimo Señor Don Carlos de Lussa, señor y baron de Lussa y de Tardetz y de otros muchos lugares, tierras y señorías», 1587ko maiatzaren hiruan eta 1591ko abentüaren bederatzüan, ondoan düalarik Garrüze Etxebarneko Gillen, bere idazkaria eta etxe zaintzalea. Lüküzerat ützüürrik zen 1593ko martxoaren 28an, 1594ko apirilaren 19an Atharratzeko jauregialat, eta horrat ikustera jin zeion ordüan alaba gehiena, Parisen eta Précý-sur-Oiseko jauregian bizi ohi zena.

Sos beharrüne tink elibati бүрү emaiteko, 1594ko apirilaren 23an, «Atharratzeko jauregian, Züberoa herri eta bizkonterrian, arrastiritan ... musde Xarles Lüküzeko jaun gora eta poteretsüak, horko eta beste lür eta jaurerri elibatetako jaun eta baru, Erregearen ordenako zaldün eta Majestate Horren ordari orokor denak erran delako Züberoa herri eta bizkonterrian», ordarigoa eman zeion alaba gehien Charlotte-Catherine Lüküz andere gora eta poteretsü, Boutevilleko etxekandereari, beren hontarzünen bidealatzeko eta bahitzeko musde François de Méritein kapitainaren faboretan, lekü hortako baita beste lür eta jaurerri elibatetako jauna denari, 5.000 lüsen heinalano, jakile dütüelarik «Maisü Behako Arño, züzenbideko lizentziadüna, Garrüze hirian sortüririk, hor bizi dena, Baxenabarre herrian, Nicolas Leclerc gizon noblea, Erregearen ama erregiña zenaren idazkaria, Jacques Garnaud, Lüküze eta Boutevilleko anderearekin egoiten dena, eta Gracian du Tisner, Atharratzeko herritarra eta egoiliarra». Bena ordarigoa horren beharrik ez zen izan, zeren musde François de Méritein, Nabarzi eta Bizkaiko jauna, bera joan zen Atharratzera; Lüküzeko baruari 306 lüs ürrezko soletan presatatü zeitzon, lüsa 12 errealetan kontatüz eta erreala 5 soletan, bermetzat ükenez Ahatsako lür eta jaurerria, Garazi herrian, bere jabegoa güziekin.

Xarles Lüküzek segidan mila libera pakatzen deitzo Philippe de Sus, bere sühiari, Espérance de Luxeren dotetik hartzekoak, eta erraiten dü jesan düan somaren ondarra, 56 lüs solekoa, egari nahi düala oihal eta anhoa erostean, Angouleme Sainte-Ausanieko abadea den andere Lucette de Luxe alabari batzarre egiteko, Atharratzeko jauregiala heltü beharra beita egün batetik besteala. Hitzarmenaren idaztean hor daude jakile Aita Tristan Lüküz, Sauvelade eta Santa Graziko abadea, Ainharbeko priorea, baruaren kosi lehena, Johane Muretekoa, Ziboze Salako jauna, Altzabeheti Etxebarneko Petiri eta Barretxeko Peiti, Onizmendiko jauna.

Gainera Boutevilleko kontesa ez zen hainbat axolatzen bere aitaren aferez, Atharratzera eginiko bisitatik bi urteetara aita horrek izkiribatü zeion gütün bitxitik asmatzen balin bada:

Ma fille. Na pas quinze jours que je vous ay escript par un de mes gens qui me gardera de vous faire la presente plus longue et seulement ce que je vous diray c'est qu'afaute de nestre asisté de vous en ma necessité je patis autant qu'autre miserable pourroit faire. Je vous ay assez de fois adverty comme vostre nom sen aloit perdu avecque moy si tost vous ny donnies ordre. Jeuserois ecore volontiers derrechef de priere si je pensis quelle peut avoir quelque lieu en vous, mais je suis quasy au desespoir voyant que je ne me suis encores peu prevaloir de vos grans biens et encore moins de vostre credit, si ne scaurois je croire qu'il nait esté en monsieur de Boudeville et vous de remettre cette maison en son premier estat ou bien a faute de ce faire de me moyenner du Roy le gouvernement et domayne de ce pays par le moyen de Monsieur le Conestable. J'attendray le retour de mes gens pour prendre plus grande assurance de vostre affection vers moi, au reste vous scaves que mon frere a faict de debtes en ce dernier voyage qu'il a faict en court pour moy. Je vous prie les vouloir payer et sur tous le cappitayne Echaux, car il est plus raisonnable que vous payes les debtes qui ont été faicts en mon occasion que non point luy. Je desirerois aussi que vous moptinsies de sa mayesté levesché d'Oleron vacant par la mort de feu Claude Reginb derner évesque, et c'est au nom de mondit frere vostre oncle, ensemble l'abaye de Sabalade et faudra que les proversions vous soient obtenues du Conseil de Navarre. Je si peu de moyen quil na este en moy de bailler à ce poureur asses d'argent pour faire son voyage de part della, je vous pri lui bailler pour son retourner comme aussy a celuy que je envoyé au paravant luy. Et esperant que vous feres mieux que vous naves faict le passé, je vous diray que je suis et seré tousjours,

Ma fille,

Vostre bon pere,

Charles de Lusse.

A Tardetz ce dernier de juillet 1596.

Souscription: «*A ma fille Madame de Boudeville à Pressy.*» - Cachet aux armes de Luxe: «*écartelé, au I trois chevrons, au II trois fascées ondées; au III un lion couronné; au IV tiercé en pal, au 1 losangé, au 2 trois fascées, et au 3 trois coquilles en pal*»; l'écu entouré du collier de l'ordre de Saint Michel.

Xarles Lüküz eta Maria Jaurgain Otsagabian egon ziren artean sortü zeitzen bi haur bederen, On Joan eta Arnalde, eta prefosta ordüan züan xiberotar koblakari batek lehentze kantatü emazte gazteñi eta xarmaga-

rri haren zorigabe hunkigarria, zeren, bera beno hogeita hamar urtez zaharragoko jaun handi bati gogoz gainti ezkonturik, kasik segidan erbestealatü behar üken züan harekin Saraitzu ibarreko karrüküne galdü batetarat.

Bestainez, Lüküzeko baruak bere lagün berriaren etxekidürüz eta lagüngoaz boztea baizik ez züan, eta horiez ikustate bizia erakusten deio I604ko arramaiatzaren hamarrean Atharratzeko jauregian egiten düan ordeinü / testamentüan:

En outre, dio, je déclare aussi que, comme est notoire a un chacun, ma maison de Tardetz estoit ruynée et dissipée de bastiment lors que je fus marié avecq mad. Premiere femme, et, qu'après la mort d'icelle, j'aurais fait led. bastiment et construction avec grands fraiz et despens, lesquels fraiz j'aurois prins non du fonds de mes maisons, mais du revenu du domaine que Sa Majesté m'auroit donné en ce pays de Soule et des commanderies d'Ordiarp et de Misericorde que j'avois par le moyen de ceux de Roncesvaulx et Sainte-Christine. A ceste cause desirant recognoistre les bons, longs et agreables services que dame Marie de Jaurgain, ma femme en secondes nopces, m'faits, tant en mes grandes afflictions en la retraicte contrainte en Espagne que du despuis en mes griefves et longues maladies et vieil eage auquel je suis, je veulx et ordonne qu'elle ait la demeure en lad. Maison de Tardetz, sa vie durant, en telles des chambres du second estaige qu'elle choisira, et, outre ce, luy ordonne et lgue la somme de quatre mil cinq cens livres toutnois ... en recompense de sesd. services et remuneration d'iceulx...

Emazteari beste abantailarik egiten deio eta bere zilarrezko baxeren erdia üzten. 3000 lüsen ondorea üzten dü bigerren oheko sei haurretarik bakoitxari eta gaineala, Valentin seme gehienari, Atharratzeko jauregian dauden armak.

«Et finalement, gebitzen dü, parce qu'en mes afflictions et eage, j'aurois reçu beaucoup de services de damoiselles Marguerite e Claire de Jaurgain, et desirant leur recognoistre leursd. Services, je donne et legue à chacune d'icelles la somme de trois cens livres... Et parce que institution hereditaire est le fondement de tout bon et valide testament, je nomme, crée et institue pour mon heritiere universelle de tous et chacun de mes biens Charlotte Catherine, ma fille aînée, mariée avec le sieur de Montmorency Bouteville, sous la charge toutesfois d'accomplir entièrement mon present testament, la priant et en l'autorite de pere commandant de ne rejeter mesd. Femme et enfans du second lit, ains les tenir pour recommandés et aymer comme ses mere freres et sœurs, et si je ne luy laisse mes terres et possessions si liquides que je desirerois c'est a mon tres gran regret et qu'elle a veu avec tous les autres les grandes afflictions et persecutions que j'ay eu pendant ces troubles, aussi le peu de secours, subvention et soulagement que j'ay eu d'elle et de son mariage.»

Ber egünean, Xarles Lüküzek ordeinü hori zerratürrik eta zigilatürrik notari baten eta zazpi jakileren aitzinean Maria Jaurgaini eman zeion «etxek eta begiratzeko fideltarzün osoan bera zentü arte». Zabaltürrik eta püblikatürrik izan zen Lextarreko kortean, 1604ko üztailaren 18an.

Goatzan orai baladako bi zitroin doratüen familiala, bi horik beitziratekean Maria eta Margarita Jaurgain, zeren horien ahizpa Klara, 1597an ezkontürrik, ez zagoan hainbat hamar urteen gainetik 1584ean.

Petiri-Arño Ürrütigoiti, Lexantzü Ürrütigoitia eta Altzabeheti Gorritepea etxe nobleetako jauna, 1521eko kontratüz ezkontü zen Margarita Armendaritz, Zalgize Apatiako anderearekin, eta üken zütüan Petiri, Marti, beste hiru seme gerlan hil zirenak, eta alaba elibat.

Petiri primüa, etxeko jaun berria, nabarmentü zen Italiako eta Alemaniako gerletan, eta ibilbide militar distiranta egin züan. François I.aren ihiztekako zamalzainen artean honartüa Peirot Ürrüti askaziari esker, ondozka izan zen erregearen zaintzako baleztari 1552an, ihiztekako zaldün eta Cypièreko jaunaren jendarma konpainiako entseinari 1554ean, ber jaunaren zalditeria arineko kapitain-ordari 1556an, 100 zaldün arinen kapitain 1557ko azaroaren hiruan, Lorrainako dükaren gelako zaldün eta arropazain nausi 1559an, Henri II erregearen gelako üsatü zaldün eta ordenako zaldün ber urte hortan, eta azkenean Lorrainako gelazain handi. 1563an zentü zen.

Aldiz, Marti ordenantzetako baleztari sartü zen François de Vendômeren zerbütüko, jaun hori Chartresko apezküpüorde zelarik, Erregearen ordenako zaldün, 40 lantzatako konpainia baten kapitain, eta jendarma izentatürrik 1553ko urtarilaren 28an, ondoko apirilaren 26an Fontenay-le-Comten eginiko erakustaldi baten txostenaren arabera. Ber urteko arramaiatzaren 26a beno lehen, esposatü züan Jaurgaineko Joana, bere küzüina, doi-doia hamalau urtetakoa, Johanto Ürrüti zenaren alaba eta ondokoa; jaun hori erregearen ordenantzetako jendarma zen; ama berriz Joana Jaurgain, Ozaze Jaurgainea etxe noble eta ariako andere.

Ezkontza hortarik sortü ziren: 1567 altean Maria, Lüküze eta Atharratzeko andere barua; 1570 altean Margarita, eta 1574 altean Klara.

Azken hau, 1597ko martxoaren zortziko kontratuz Arabehereko Tristani ezkontia, 1647ko agorrilan orano bizi zen.

Jakes Ürrütigoiti, Jaurgaineko jauna, Lorrainalat deitü züan Khiristi-Xarles Ürrütigoiti lehen kosiak, hots Courgivaulxeko baruak, gaineala Ürrütigoitia, Gorritepea, Ys en Bassigny, Haulcourt eta Malencourteko jaun, erregearen gelako üsatü zaldün, Lorrainako dükaren Estatü kontseilari, Marsaleko gobernari eta infanteriako errejimentü batetako güdaritegiko nausi zen Khiristi Xarles hori, eta 1567tik landa Jakes ordenantzetako baleztari sararazi züan Charles de Lorraine, Aumaleko dük, Frantziako *pair* eta ihizlari handiaren zerbütüko. Ber konpainiako 60 lantzarekiko erakustaldi batetan parte hartü züan Parisen 1579ko urtarilaren lauean, eta ments ekarririk izan zen beste erakustaldi batetan, Bellenglisen, Saint-Quentin altean, 1581eko agorrilaren 28an; haatik nausi berriak, Matignoneko marexalak, manatü züan, ber hilabeteko 13an, bere soldata paka lizen. Jakes Ürrütigoiti zerbütüan hil zen hortik laster, eta ordüan haren arrebä Mariari ondorez joan zitzaion Jaurgainea. 1586ko azaroaren 15ean, Joana Jurgain, Ozaze Jaurgaineko andere jabeak lür buzi bat 126 franko bordelesetan saltzen deio Salako Grazian, Ozazeko erretor den apezari, denborarekin arrerosteko hitzarmenez; Joanak aitortzen dü Marti Ürrüti zamalzain zenak Jaurgaineko jaun zelarik 40 franko zor zeitzola erostün horri, eta berak ondarra egari züala «tant à l'entretien de deffunct sin filz auxl escolles que en sas aultres necessitas urgentas d'evitar plus grand damnaige».

Marti Ürrütigoitiren alargüntsa franko etxekandere txarra zen, eta horren beharrüne presatüek, üsü berritürik, jesapen hanitx eta Jaurgaineko lür elibaten saltzea ekarri zütüan. Horren alaba gehienak ere, diharü amari prestatürik, kontüak xüxentü nahi üken zütüan eta bere ondorea salbatü: Lextarreko kortean 1599ko agorrilaren 3In hasiriko auzibide batetarik ikusten da «*que Marie de Rutigoity, dite de Jurgain*», «*fit saisir et criéer lad. Maison noble de Jurgain avec toutes ses appartenances et dépendances*» au préjudice de «*Jehanne de Jurgain, aussi damoiselle, dame propriétaire et functière de lad. maison et appartenances, à faulte de paiement de certaine somme de deniers*».

Jaurgainean, 1618ko urtarilaren 27an eginiko idazki batez, Maria Jurgain andereak, musde Lüküzeko Xarles, horko jaun eta baru, Erregearen ordenako zaldün zenaren alargüntsak, aldarrikatzen dü Charlotte-Catherine de Luxe et de Bouteville, Lüküzeko jaunaren ondoko orokorrak erran zeitzon gaizkiengatik, senarra hil eta laster, Atharratzeko jauregia ützi behar üken züala, eta Lüküzeko jaun horrekin ükeniko sei haur lejitimoen konpainian – Valentin, Jean, Arnalde, Valentine, Espérance eta Marguerite, - bere sortetxealat ützüli, *«et illec nourrir et entretenir tous ses ditz enfans à ses despens particuliers et de sa dite maison maternelle sans avoir esté en part nest quart, assistée de lad. Dame de Luxe», et qu'elle se trouve «destituée de tous moynes et facultés pour avoir tout mesme employé lesd. biens de sadite mayson maternelle de Jurgainb à la nourriture et entretenement desdits six enfans d'entre ledit feu seigneur de Luxeet d'elle, ainsi qu'est notoire a un chacun».*

Haur horietarik lehena, Lüküze eta Jurgaineko Valentin, 1608ko agorrilaren 20an amak Ozazeko erretorgoala izentatü züan, Jurgainek züzen hori beitzüan Santa Graziko abadiarekin aldizka; bena ez zen orano ordonatüririk eta ez züan beretü ahal üken 1609ko azaroaren laura arte. Gero ideiaz kanbiatü zen, sotana üzi züan eta armen ofizioa hartü nahi üken. 1610eko azaroaren 30ean, «andere Maria Jurgain, etxe noble hortako andereak, eta Valentin Lüküz, zamalzain, horren seme gehien, etxe hortako jaunak», afios, arranda noble eta lür arranda elibat 210 libera tournoisen berme ezarten dütüe, eta soma horren parte bat baliatüririk date *«a faire le voyage que lesditz sieur Valentin de Luxe et Jehan de Luxe, son frère, escuyer, font pour aller au service du roi de France»* Valentin Züberoalat ützülik zen urte baten bürüan: 1611ko abentüaren bian, «aitoren seme Valentin, Lüküz, Jurgaineko jaun» agertzen den idazki batez, lür arranda elibat ezarten dütü 150 liberako soma baten berme, *«éclairant avoir icelle, pour subvenir a un certain voyage que ladit. Dame a délibéré faire dévotion et pèlerinage à Notre-Dame de Monsaratt»*

1621eko ütztailaren 28an, Charlotte-Catherine de Luxe, lekü hortako eta Boutevilleko baita beste güne et jaurerri elibatetako andereak, Lextarreko kortean jakinarazten dü Frantzian bizi delakoz, erregearen

korte ondoan, Atharratzeko jauregiaren eta lürraren kudeatzeko izentatü düala Arnaud de Casenave, Oloroe Saint-Marieko kalonjea, eta «*sans aucun droict ny raison, Valentin et Jehan de Jaurgain, prebtre et escuyer, s'introduisirent dans led. Chasteau clandestinement et d'autorité privée, et s'en emparèrent ensemble desd. rentes et revenus d'icellui, il y a quelques années, tellement que de leurs attemptatz et façon de faire le Roy en auroict été adverty*». Louis XIIIren manüz, Mayenneko dükak, Güiena / Akitaniako ordari orokor bezala, bere jendarma bat Züberoalat igorri züan gobernariari lagüngoaren galtatzera, baruerri horren ützülarazteko Lüküzeko kontesaren jabegoalat, eta 1621eko ütztailaren 30ean, Ligny, erregearen sarjenta, Maule gaztelüko bi zaintzalez ürgaitzirik, joan zen Atharratze jauregiko afios, legar, arranda, detxima eta mozkinen bahitzera Atharratzen eta Onizegainen, eta hor ediren zütüan Valentin eta On Johane Lüküze eta Jaurgaineko zamalzainak, baita horien bi arreba, Espérance eta Marguerite Lüküz eta Jaurgain. Bahiketaren berria eman zeien. Valentinek salatü zütüan Lüküzeko anderearen ordariak bere galtoan haren ohorearen aitzü egari zütüan hitz laidostagarriak, gehitüz ez züala komisarioer epantxürük egiten. Aldiz On Johanek eta bi ahizpek bahitzea trabatü züen, «Lüküze etxe nobleko seme-ababa lejitimo bezala», eta protesta egin züen despendio eta damü eta interes güziez edonoren aitzü, beren ezetzaren arrazuak behar ziren ordü eta günetan emaita eskeiniz.

1622an Valentinek Ozazeko erretorgoa arrahartürük, Gamerekoarekin trükatü züan, eta 1623an eztabada bat üken züan Pierre de Conget, Barkoxen eta Atharratzen erregeren «*bailli*», Lüküzeko kontesaren ekonomarekin, Ozazeko detximaz, eta apez izanik ere, ezpata hararazi nahi üken zeion, aharra güdüka batez ebakitzeko.

Le sixiesme de juillet 1623, dio bailli delakoak bere kudeantzaz kontü emaitan, apres plusieurs contestations que j'eus avec monsieur de Jaurgain, jusques à me donner le duel, à cause des proclamatz que je fis faire à Ossas et ailleurs, et parce que lui et mademoiselle sa mere vouloient avoir la disme, je l'affermay pour deux ans à Tristan d'Arabehere, capitaine, à raison de cent cinq livres par an .

1623 urte hortan eta abentüa beno lehen, Charlotte-Catherine de Luxek bere anai Valentin Atharratze eta Onizeko erretorgoaz düntü züan, eta hau erretor zen orano 1628ko abentüaren zoztzian. 1640ko ürrietaren 13an, Valentin berriz Ozazeko erretor zen eta Santa Graziko kalonje. 1671ko maiatzaren 13an orano bizi zen. Egün hortako inkesta baten arabera, lauetan hogeita sei urteak zütüan.

Johane Lüküz eta Jaurgain zamalzain eta kapitainak, Valentinenganik primantxa ükenik 1643ko agorrilaren 12ko kontratüz, erregea zerbütatü züan hamalau urtez eta 1624ean esposatü züan Saurina Ogentx anderea, Antoni Ogentx jaunaren alaba, aita hori zamalzaina, Gamere Eihereskiko jauna; ama, Katalina Eihereski anderea. Johane Lüküzek Jaurgaineko familiari segida eman deio.

Arnalde Lüküz eta Jaurgain San Agostiren ordenako apeza zen Saint-Etienne-du-Plessisen, 1620an, eta Valentine serorageia, Sor Saint-Hierosme izenez, 1624ean, Caeneko Karmeliten komentüan, zoin ere egin berri züen 1622an Valentine ahizpak eta haren senar Corboran de Morel d'Aubignyk. Arnalde eta serorageiak aitarenganiko etxe parteak ützi zütüen Lüküzeko kontesa zen haurride gehienari, 1620ko agorrilaren 20ko eta 1624ko maiatzaren 30eko idazkiz, eta hitzarmen horik Lextarreko korteak honartü zütüan ondoko agorrilaren 30ean; bena Baxenabarren, honarpenealako nekeziak agertü ziren, eta azkenean ez zen egin ahal izan kantzilergoan, Charlotte-Catherinek hartzen züan *Lüküzeko subirano* gradüa zela kausa. Hona nola Pierre de Congetek eztabada horik kontatzen dütüan, aski bitxiak beitira Lüküzeko ustezko subiraniaz delarik.

Madame de Grammont m'ayant fait savoir qu'elle avoit quelques papiers à Vidache et que j'envoiasse les querir, j'y envoiy un homme espres et païé pour la eespanse et peyne d'iceluy quarante huict sols.

Ledict homme me porta aveq une letre de Madame les donations que Arnalde de Jaurgaing, religieux de Saint Etienne du Plessis, ordre de Saint Augustin, et soeur Valentine de Saint Hierosme, novice au couvent des religieuses carmelites de Caen, luy feirent pour les faire insignuer au siège de Lixarre, ce que je

fis faire le 30 d'aoust 1624, et païé tant au juge, greffier que a l'advocat et procureur desd. donations, compris le cleric de greffe, unze livres quatre sols.

Aussy tost je m'en allay a Saint Palais en Basse Navarre et remontré a messieurs de Lespade et Armena, advocatz, le desseing que j'avois de faire lesd. Insignuations, suivant l'advis desquels aiant faict dresser une requeste audict sieur Lespade nous y travaillames, mais ne peumes rien faire a cause de l'incistance que monsieur le procureur general forma sur le subject des mots de de souverain de Lusse contenus ausd. donations et païé aud. de Lespade pour sa peyne trois livres quatre sols...

Ayant receu nouvelles de monsieur de Compigny et aussy acertainé deça que monsieur de Gramond et Mrs de la Chancellerie de Navarre s'estoient reconciliés depuis l'affaire qui se passa concernant quelque rebellion d'aucuns de la ville de Saint Jean, je m'acheminay devers Monsieur et Madame de Gramont pour retirer deux lettres de faveur adressantes asd. sieurs de la Chancellerie pour faire passer lesd. Insignuations et enregistrements desd. donations encorres bien que le mot de souverain y fust, lesquels je trouvay à leur ferrerie qui me remirent au landemain à Vidache. La aiant parlé et conféré au sieur de Romatet l'advocat qui dict que puisque led. seigneur de Gramont estoit le chef des officiers de Sa Majesté en Navarre, il ne pouvoit escrire telles lettres, mais qu'il falloit tascher a faire passer cela par dextérité. Sur ce j'alay à Saint Palais, où Monsieur d'Esquille le Vischancelier me donna esperance. Mis nonobstant cela et ce que Pedesert et moysceumes faire, Monsieur de Vidard le procureur general se roidit, de telle sorte qu'il n'y heult moien de rien operer. De maniere que pour ne faire plus de bruiet sur ce et ne renouveler les affaires passées entre Madame et ladicte Chancellerie, je me retiray en ma maison aiant séjourné quatre jours et despandu 8 livres...

Après avoir receu amples nouvelles de Madame, suivant sa volonté le 6 septembre 1625, je fus au pays de Size en Basse Navarre et fis insignuer en la cour de Size les donations faictes par les fils et fille de Jurgaing et païé pour l'enregistrement, insignuation et grosse, tant à l'alcalde, greffier que a d'Aros-teguy, procureur desd. sieur et damoiselle de Jurgaing deux escus sol.

En octobre 1626, je fis faire semblable insignuation devant les baillif roial et juratz de Saint Palais où le mot de souverain de Lusse passa, et païé à tous pour l'expedition six livres huit sols.

Le mesme mois d'octobre 1626, je fis faire mesme insignuation en la cour de Mixe, au lieu de Garris, et païé pour l'enregistrement, insignuation et grosse, compris le droict de l'advocat et procureur desd. de Jurgaing six livres huit sols.

Comme aussy je fis enregistrer et insignuer lesd. donations en la forme que dessus en la souveraineté de Lusse, ensemble en la baronnie d'Ostabat, baronnie de Lantabat, et en la baronnie d'Ahatze, et païé aux greffiers pour les enregistremans, copies et grosses, ensemble à ceux qui servirent d'avocat et de procureur desd. de Jaurgaing douze livres seze sols.

Espérance Lüküz eta Jaurgain ezkontü zen Arño Mendikota Bertetxeko jaunarekin eta haurrik gabe alargüntsa agitü zen 1629an, senarra «hilik Parise altean korte ondotik ützültzean». 1635ean, auzitan ari zen orano bere züzenez arralloba François-Henry de Montmorency, Lüküzeko konte subirano, Atharratzeko baru, etab... geroztik Piney-Luxembourg eta Beaufort-Montmorencyko dük, Frantziako *pair* eta marexalaren aitzia.

Azkenik, apentziala Margarita ez zen ezkontü. Aldiz baladako süjeta, Maria Jaurgain, orano bizirik zen 1631ko abentüaren 21ean, eta ondoko üztailaren hiruan itzali zen. Arren hiruetan hogeita lau urteen üngürüan hil zen, bere hontarzünez ere gabetüxerik bera beno hanitzez aberatsagoko aitoren seme batekin eginiko ezkontzaren ondorioz.

IV. *Egun bereko albargunsa - Egün berreko alarguntsa*

Goizean goizik jeiki nündüzün, ezkontü nintzan goizean
 Bai eta ere zetaz beztitü ekia jeiki zenean
 Etxekandere zabal nündüzün egüerdi erditan
 Bai eta ere alarguntsa gazte ekia sartü zenean.

Musde Irigarai, ene jauna, altxa izadazüt bürüia
 Ala dolützen ote zaizü enekila(n) ezkontzea ?
 Ez, ez, ez zitadazü dolützen zure esposatzea
 Ez eta ere dolütüren bizi nizano, Maitea.

Nik banizün maitetto bat mündü ororen isilik
 Mündü ororen isilik eta Jinko jaunari ageririk
 Buket bat igorri ditadazüt lili arraroz eginik
 Lili arraroz eginik eta erdia pozuatürük.

Zazpi urtez etxeki dizüt gizon hila kanberan
 Egünaz lür hotzean eta gäüz bi besoen artean
 Zitru hurez üküzten nizün astean egün batean
 Astean egün batean, eta ostirale goizean.

Alargüntze goiztiar eta lazgarri hontako süjeta, düdarik batere gabe, Bernat Lohitegiren alabetarik bat, aita hori Zaro, Aintzila, Iphartze eta Larzabale Dona Maria Saletako jaun, Nafarroako erregearen Etxeko eta Korohako galto ikusle, parlamentüko abokatü zelarik; ama Graziana Logras: süjetak, Gabriela Lohitegi Zaroko andereak, hogeita hamar bat urte zütüan 1633an esposatü züalarik Petiri Irigarai, zamalzaina, Altzai Irigaraiko eta Mendikota Casenave / Etxeberriko jauna.

Proba segürra ekarten deikü 1635eko arramaiazaren bederatzüko idazki batek. Hor Zaroko Bernat Lohitegik dio Mendikota Casenave / Etxeberriko eta Altzai Irigaraiko jaun-andereenganik hartze düala 1875 libera tournoisetako soma bat, Gabriela Lohitegi alabaren dotetik parte pakatü züana 1633ko üztailaren zortzian, horren ezkontzako hitzarmenak sinatü zütüen egüean, eta interesak zor zaitzola ber egünetik.

Arren dote ützültze hortarik ageri da Petiri Irigarai hil zela Gabriela esposatü züan ber egüean. Haren bi anaiak Petiri deitzen ziren, bera bezala. Gehiena ondoko düke; Saurina Oliberon esposatü züan eta fami-liari segida eman zeion. Luxi horren arra-arralaba Altzai Irigaraiko eta Mendikota Casenave / Etxeberriko andereak esposatü züan, 1763ko bürüila / setemeren 13an, Jean-Pierre d'Uhart noblea, Arüe Arrozpide-ko jauna.

Esküzko ordeinü batez, 1627ko maiatzaren 18an, Zaroko Bernat Lohitegik 3000 bordeles libera eta 50 lüs soletan finkatü züan orano ezkontürrik ez zütüan alabetarik bakoitxaren dotea, hots Gabriela, Gra-ziana eta Paularena.

Gabriela senarraren oritzapenari etxekirik egon zen hamabost bat urtez: gero, berrogeita hamar bat urteer bürüz, bere bihotza mardotzera ützi züan bera beno zaharxeago züan aitoren seme xiberotar baten ele goxoez: Henri Ahetz, zamalzaina, Urdiñarbe Ahetzea eta Muskildi Erbizea etxe nobleetako jauna esposatü züan 1648an.

Bernat Etxauz, Ahetze eta Erbizeko jaunaren eta Zalgizeko Frantse-saren bigerren semea, Henri Ahetz, 1618ko ürrieta 20an soldado zen, Johane Irunberrirekin, erregearen zaintzaleen 109 hoinkaritako konpainia batetan, Léon d'Albert de Luynes kapitainaren manaspenean, Parisen, Louvre palazioko sargiaren aitzinean eginiko erakustaldi baten txostenaren arabera. Ahetzeko jaun sartü zen Laurentx anai gehienaren ondotik, hau 1633ko urtarilaren 18an hil beitzen, Anne de Béarn-Bonasse emaztearekin haurrik üken gabe.

Berriz ezkontzean, Irigaraiko jaun malerusaren alargüntsak berrogei-ta sei urteak beterik zütüan, eta halere senar berriari hiru haur eman zeitzon: Johane 1649an; Martina 1651an, eta Katalina 1652an. 1664ko arramaiatzaren 19an berriz alargüntsa zen eta bere haurren haurrabe.

Johane Ahetz estüdioen egitera joan zen Bordelera. Han eritü zen 1666ko azaroan, Ahetzeko jauregiat ekarri züen, eta hor zentü zen las-ter, 1686ko ürrieta 17ko idazki batek kontatzen düan bezala.

Martina, anaia zentü ondoan Ahetze eta Erbizeko jabe eginik, bera beno hamazortzi urtez zaharragoko senar batekin zen 1675etik, hura zelarik Arño Berteretx, zamalzain eta Lextarreko kortean abokatü, Mendikota Berteretxea etxe nobleko semea, eta amaren ondotik Muskildi Etxeberrittoa, Elizagaraia eta Oilhoborroa laborari etxeetako primüa. 1688ko urtarilaren 21ean hil zen, berrogeita hamabost urteetan, ondokorik ützi gabe.

Katalinak esposatü züan, 1680ko barantailaren 13an, hogeita zortzi urteetan, Erramun Bordagarai, merkataria, Pagola herrikoa. Harekin seme bat phürü üken züan, Tomas, Ahetzeko hontarzünen jabegia, eta, lürraldeko üsantxaren arabera, etxearen izena eta armarría hartü zütüan.

Aldiz Gabriela Lohitegi, Ahetzeko jauregian zentü zen 1688ko apirilaren 27an, lauetan hogeita sei urtetako adin ederrean.

V. *Mus de Sarri - Musde Sarri*

Ürzo lüma gris gaixoa
 Ore bidajean bahoia
 Gertatzen bazaik musde Sarri, jaun apetitü hon hura
 Begiz ikusten balin bahai, Phetiriñalat bahoia.

Ürzo gaixoak ümilki
 Diozü musde Sarriri
 Egündano ez deiola ogenik egin jaun hari
 Ützi dezan igaraitera üsatü düan bideti(k).

Auher dük, auher, ürzoa
 Jüratü diat fedea
 Aurten, aurten, jin behar düala eneki Phetiriñala
 Han nik emanen dereiat artoz eta ziz asea.

Artoz asea hon düzü
 Libertatea bagünü
 Orhiko bago ezkürtto hurak guri hobexe zizkützü
 Anglesa Frantzian sartzen bada, Espainialat bagoatzü.

Ürzoa, ago isilik
 Frantzian ez dük anglesik
 Baionara jiten badira Ag(a)ramontek hilen (di)tik
 Phetiriñalat ez dük heltüren zaragoila lüze h(ai)etarik.

Fida niz zure erraner
 Fidago ene hegaler
 Goraintzi erran behar deiezü jiten badira angleser
 Nik ere ber gisan erranen diet espainol papo gorrier.

Goraintzi erraile angleser
 Ni naik(a) ezarten mezüler ?
 Orai diat, orai, ikusten nitzaz hizala trüfatzen
 Bena ez naik, beste urte batez, bortüan hotzeraziren.

Jauna, zoaza etxerat
Mauletik Phetiriñalat
Txori eta bilagarro gizen zonbaiten jatera
Ürzo hegal azkartto hoiek ez dira zure bianda.

Sarri apeza, teologian doktore eta Bithiriñako erretor, *jaun appetitü hon bura*, kantore hontan basa maitarzünezko nahigabe batetako süjeta, Montreal-Iruri etxeko bastart bat zen.

1711n, Moneinseko andere markisa, Françoise-Madeleine de Gassion, konpainian zagoan Iruriko jauregian, salu handian, noiz ere semea, ordüan hamazortzi-hemeretzü urtetakoa, erregearen zaintzako mosketaria, sartü zen erranez: «Anderea, seme bat sortü berri zitazü. Zer izen plazer düzü eman dezaioгүйн? - Sarri (geroxe)», ihardetsi zeion markisak, eüskaraz.

Sarria hain xüxen Montrealtarrek Baxenabarreko Jutsin züen etxe noble bat zen. Mosketari gazteak amaren arrapostüa ez züan entelegatü, edo aholküztat ikusi züan: bere bastarta bataiarazi züan Sarriko Jean-Pierre izenarekin.

Armand-Jean Montreal, Moneinseko deitüa, izen hortako II.a, 1692ko ürrietaren 12an sortüa eta Maulen bataiatzera ekarria ber hila-beteko 18an, Armand-Jean I.a deitüaren seme bakoitxa zen; aita hori jaun gora eta poteretsüa, Moneinseko markis, Iruriko konte, Atharrazeko bizkonte, Montori, Gayrosse eta Domintxaineko baru, Barkoxe, Amendüze, Martxueta, eta beste lekü elibatetako jaun, Mauleko kapitain gaztelüzain, Züberoa Herriko gobernari, Nafarroako zenexal handi; ama Françoise-Madeleine de Gassion. Zerbütüan sartürik erregearen zaintzako mosketarien lehen konpainian, türütari izentatürik izan zen 1717ko arramaiatz lehenean eta ordarigei 1726ko urtarilaren 25ean.

Montrealeko Armand-Jean II bere etxeko hontarzünen primü agitü zen 1720an, halaber Mauleko kapitain gaztelüzain eta Züberoa herriko gobernari kargüetan, horien iraüpena ardietsirik 1718ko agorrilaren hamekan, Nafarroako zenexal ere bilakatüz. Bere harreman sozialetara-

ko aitak egarten züan Moneinseko markis titulüari hobetsi zeion Iruriko kontearena, arraosaba Armand-Jean du Peyrék gora ekarria, Iruriko konte hori erregearen zaintzako mosketarien kapitain-ordaria beitzen, baita erret armaden ordari orokorra eta Foixeko probintzian gobernaria.

Iruriko konte berriak Jean-Pierre Sarriren arta eta eskola esküzabalki segürtatü zütüan. Apezarazi züan eta Iruriko erretor izentatü, Xiberoan, gero 1742ko urtarilaren zazpian Bithiriñan – Xiberoko eüskaraz Phetiriñan – Amiküze herrian.

Jean-Pierre Sarri noblea Bithiriñako erretor zen orano 1749ko azaroaren lauean. Segida hartü zeion, 1753ko urtats aitzin, Armand-Jean Irigarai-Jauregizahar, mendikotar apezak.

Ondotik musde Jean-Pierre de Sarry deitürük da, Iruriko bastarta, 1764ko üztailaren 20an, eta musde Jean-Pierre de Sarry apezka 1768ko setemere / бүrüilaren 16an. Maulen hil zen eta Barkoxeko eliza sargian ehortzirik izan, non ere orano ageri den haren hilartitza:

ICI REPOSE MESSIRE JEAN PIERRE DE SARRY DE TROISVILLES,
PRÊTRE, DOCTEUR EN THEOLOGIE, PREBENDE DE BARCUS,
BEYRIE ET MONEIN, MEMBRE DES ETATS GENERAUX DU PAYS
DE SOULE, DECEDE A MAULEON LE 25 OCTOBRE 1777, AGE DE
66 ANS. PRIEZ POUR LUI.

Sarri apezak aipatzen düan *Agramont*, Louis de Gramont zen Bidaxü-
neko subiranoa, Gramonteko düka, Frantziako *pair* delako bat, erregea-
ren ordenako zaldüna, eta erret armadetako ordari orokorra, Nafarroa-
ko errege-ordea, Baionako auzapeza eta kapitain orokorra, Fontenoyko
güdükän hila 1745eko maiatzaren hamekan, edo Antoine-Antonin de
Gramont, horren semea, segida hartü zeiona Nafarroako errege-orde eta
Baionako kapitain orokor bezala.

VI. *Arbotiko prima eijerra - Arbotiko prima eijerra*

Jaun baruak aspaldin (aspaldian)
 Xederak hedatü zütin (zütüan)
 Txori eijer bat atzaman dizü Paueko seroren komentin (komentüan)
 Orai harekin biziren düzü, aspaldian gogun beitzin (gogoan beitzüan).

Jaun barua orai zü
 Felizitazen zütügü
 Zeren beitzü müde de La Plazaren prima eijerra esposatü
 Andere hori irus düzü, zuri ez deizügü dolü.

Xedera balitz halako
 Merkatüetan saltzeko
 Ziberoako aitonon semek eros litzaizkie oro
 Halako txori eijertto zombaiten atzamaiteko !


Eztei kantore hau, orano hanitx entzüten dena Xiberoan eta Baxenabarren, hamazortzigerren mente erdikoa da. Xiberotar bestaliar batek hontü züan Armand-Jean d’Uhartan eta Arbotiko Marie de La Placeren ezteietan, Marie zelarik musde Xalbat de La Placeren eta Jeanne-Justine de Nays-Candaueren alaba gehiena eta prima; aita Arbotiko barua, Baxenabarren, Tabailako jauna eta Ezpiutako apate laikoa Bearnon, Nafarroako parlamentüan kontseilari.

Armand-Jean d’Uhart, erregearen zaintzako mosketaria 1750ean, gero Royal-Cantabre errejimentüko aitzindaria eta Saint-Louisen zaldüna, ezkontzean Arbotiko baru titulüa hartü züana, Gabriel d’Uhartan bigerren semea zen; aita, zaldüna, Uharteko eta Sorapürüko barua Baxenabarren, Oztibarre herriko *bailli* handia, Xiberoko milizien errejimentüko kolonel-ordaria; ama Zalgizeko Madeleine, Zalgize Apatia, Irabarne Domeka eta Zihiga Domeka etxe nobleetako prima, Xiberoan. Armand-Jean d’Uhart Bearnoko Estatüetan honartürük izan zen Tabailako jaun bezala, 1757ko martxoaren 24ean, eta Nafarroako Estatüetan, Arbotiko jaun bezala, 1758ko martxoaren hiruan.

Arbotiko Marie de La Placek seme bat baizik ez zeion eman, Jean-Alexandre-Nérée d'Uhart, Arbotiko barua, 1761eko maiatzaren 12 an bateiatua, adin gazteegia kontutan hartu gabe Nafarroako parlamentuan kontseilari honartua 1783ko maiatzaren 14ean, eta kargu hori bete zuan Iratülzalano. Haurrik utzi gabe hil zen, ondoko eginez d'Arripe de Lan-necaube barua, Baionako Diharütegi züzendaria, eta horren ondoregoa-ko hontarzünak antxeretan saldürük izan ziren 1806ko barantailaren 15ean: Arboti Jean-Pierre Daguonet, «*génie*» armako batailu bürüari, eta Ezpiuta Laurent d'Abbadie d'Ithorrotz, Saint-Loupko baruari.

Jean de Jaurgain.

6. Jaugainek agertü kontairen ütürriak



Le Pays Basque libürüa

(Argazkia: Azkue Biblioteka eta Artxiboa, Jon Bilbao funtsa, JB-I61)

Libürü hori, 1857an agertürrik, Elkar argitaletxeak berriz argitaratü dü 1994 urtean

Jaugainek bere idazlaneko notetan erraiten deikü kantore bakoitxa non ediren düan. Haren ondotik, goatzan arren ütürrietara. Biga üken dütü nausiki: Francisque-Michel frantses ikerzalea (1809-1887) eta

Jean Dominique Julien Sallaberry mauletar notaria (1837-1903). Bate-tik besteala, 1857tik 1870eala, grafian kanbio handia ikusiko dugu, Sallaberryk ekarria, eta horrena Jaurgainek berantxeago hartuko du. Sallaberryk bere metoda eta bidea azaltzen deizkú *Chants populaires du Pays Basque* libürüko sargian, VII-X ostoaldeetan. Hona kanbiorik handienak: *c* ezta eta *ç* / *z*, *c* gogorra / *k*, *g* ezta / *j*, *gu* eta *gb* / *g* gogorra, *ill* / *ll*, *ou* / *u*, *u* / *ü*, bena *ch* etxekitzen dü.


Hogeigerren mentean ürrats bat gibel eginen da *ou* eta *u* zaharrak arrapiztüz, eta *o* elibat *ou* eginez: katexima grafia hortan ikasiren dü Ürrüstoin 1942tik 1947ra. Gero, berrogeita hamarretik laster, Lafon euskaltzainak Sallaberryren *ü* erran delakoa berpiztükü dü, eta gero Xiberoko elizak Guillaume Eppherre euskaltzainari esker Sallaberry eta Lafonen grafia egariko. Hortan dirau, bena eüskarari lekü güti ütüz maleruski.

Hiruetan hogeiko hamarkada hastean, Pierre Charritton euskaltzain ordüan urgazleak *x* hizkia Iparraldean sartü züan *ch* bereizlearen orde. Polemika piztüz zen, eskandala ohiko eüskalzaleen artean, bena gazteek honartü günüan eta holaz hedatü zen Xiberoan ere.

1964tik, Baionako Biltzarraren aholküak enetüz, zübereraz ere *ia* eta *ua* basa diftongak *ea* eta *oa* izkiribatü düüt, gainera kontsonanteen ondoko *b* kentüz. Ihork ez zeitan kasürik egin. Haatik, hogeita zombait urte berantago, Xiberoko Gaü Eskolek, Junes Casenaveren üngürüan, grafia berria hartü düe, gainera ni beno hürrünago joanez *ia* / *üa*, *ie* / *üe*, *ai* / *aü*, *ei* / *eü* basa diftongen kasüan. Püntü horri ez nüan pentsatürik, etsenplürik ez ükenez beste eüskalkietan, ez eta euskara batuan.

Horren betatzea denbora buzi bat kosta zait. Adibidez *leküa* idaztea lojiko balin bada hitzaren erroa errespetatüz beti (*lekü* + artikülü gisako *a*), hanitxez gaitzago da *irain*, *lein*, *nai* formetarik *iraiin*, *leüin*, *naü* molde berrietara igaraitea, eta oso gogor zait orano ere. Gainera üsatü *i* letratik *ü* hizkira igaraitean, batuari kasü egin behar zaio, eta ez baitezpada kantükü eüskalki nafarrari, *au* formaz hain jori denari. Adibidez *jaütsi* eta *zaüt* baztertüz, *jaitsi* eta *zait* idatz, Junes Casenaveren *Eüskara-français Hiztegiak (II)* dakartzan bezala.

Arte hortan, 1978ko üdan, Bergarako Biltzarrean, Euskaltzaindiak erabaki züan batuko grafia erabiliko zela eüskalki güzietan, hizkuntzaren zola errespetatüz, eta ürrentzean, Koldo Mitxelenaren üngürüan, han ginen euskaltzain oso güziek deliberoa sinatü günüan. Haatik gero, gureari aplikatzeko tenorean, Iparraldeko batek bere düdak agertü zeiztan: «Usaiakoa ez ote zen aski?»), bena hortan baratü zen. Beste bat aldiz



Chants populaires du Pays Basque libürüa
(Argazkia: Azkue Biblioteka eta Artxiboa, Juan Carlos Guerraren funtsa, JCG-1992)

J-D-J. Sallaberry, mauletar notaria, grafia berriaren aitaita / aitañi dügü. Horren libürüa Nimesko Lacour argitaletxeak berriz agertü dü 1992 urtean.

klarki mintzatü zen irratiz, berritan bederen, gure grafia xaharraren alte, xiberotar euskaltzainen gainetik, fonetikaren izenean. Egia da grafia berri horrek ahoskeran nekeziak sortzen dütüala alfabetatürük ez direnen artean. Halere Xiberoan erabakia errespetatzen da nausiki, bereziki hiru eskola sailetan: publikoan, katolikan eta ikastolan. Gaüzarik beharrena, alkar entelegatzea da, eta hortako ber gisan idaztea, nahiz grafia ez den hizkuntzaren bihotza.

Azken urte horietan Xiberoko idazle, irakasle, kasetalari, eüskararen teknikariek kanbio txipiñi bat ekarri dügü *b* letraren erabileran: Euskaltzaindiaren *alba* salbüespenak ireki bidetik, eta Bergarako erabakia bere osoan hartüz, *b* kontsonante baten ondotik sartü dügü xiberotar hitz bereizi elibatetan, haien ez nahasteko: *ala / alba, belar / belbar, eri / erbi, zale / zalbe*.

Ene aldetik builta batez hürrüntxe joan nintzan beste püntü batetan: ene idazkietan *e* hizkiaren orde *a* sartü nüan beste eüskalkiek edo / eta batuak letra hori düen hitz eta aditz forma batzüetan, adibidez *bena / baina, zeitan / zaitan*... Hortan gibel egin behar üken nüan.

Dena dela, hona orai Francisque-Michelen eta Sallaberryren arteko liferentzien ikusteko aldia, Sallaberryren lan baliosa merexi düan heinean estimatüz.

6.I. Ürrütiako anderea

Francisque-Michel, *Le Pays Basque*, Paris, 1857, in-8°, 399. or.



Altzürükün Ürrütia jauregia, oraiko meria / herriko etxea.
(Argazkia: Wikipedia)



Urruti jauregiko pastoralaren KDa (Argazkia: Agorila)

Trajeria hori, Niko Etxart herritarrek hontürrik, altzürükütarrek eman züen 2002ko üdan, harogaitz andanaren artetik.

ERESIA.

(Suberotarra.)

Hauzeco anderia
Urrutian korpitzez;
Hor du bere buria,
Campoan da bihotzez.

- Nor du bere maitia ?
Nahi nuke eghia.
Gincoac nahi badu,
Hilzia ukenen du.

- Goure jaun Urrutia,
Khechian bethi zia (*zira*);
Erradazu zertaco.
Ni enuzu campoco.

- Hurrunt zite ni ganic,
Eztit zure beharric
Bazoaza campora
Adar ene bilzera.

Jauna, holaco lanac
Hauzeko anderiac
Eztitizu ikasi;
Hen doazu ihesi.

Elhe hoiec ahotic
Jalkitzen zielaric (*zirelaric*),
Urrutiac bilhoti
Therresta du ibili.

- Gincoa, zer bizia !
Oi ! jaun Urrutia,
Ni Hauzeco etchian
Nunduzun bai bakian.

Hounat jin behar nizun,
 Ene zorthia zuzun,
 Bihotz min ukheiteco,
 Zure khecherazteko.

Oghen gabe zu, bethi
 Mintzo zitzaist (*zitzaist*) gogorki.
 Othoi zure beghiac
 Utz ditzala khechiac.

Goizian goiz jaikiric,
 Goiz ophilac eghinic,
 Hauzeco anderia,
 Lehia dun handia.

Zareta (*Zaretara*) bat burian,
 Camporat jalkitzian,
 Mous d'Urrutiac zian
 Baratu bai bidian.

- Noun zabilza hain goizic,
 Jaureghia huxturic (*busturic*) ?
 Galthatzen du Urrutic,
 Beghiac oldarturic.

- Jauna, ikhouston duzu,
 Nahi balin baduzu,
 Noat (*Norat*) orai nabilan
 Zareta (*Zaretara*) bat burian.

Gente eskeliari
 Emaiteco sokhorri,
 Madama Urrutiac
 Hartu zutien (*zutian*) bidiac.

Ophilez zaria beitzen
Betheric gente prauben,
Urrutiac zarian
Eskia ezarri zian.

Ophilac ordu hartan
Jin zirien (*ziren*) haillicotan.
Urrutiac behala
Uste trompatu zela.

- Ehuleco etchera
Zoaza bilberaztera ?
- Jauna, ikhouston duzu...
Orai zuc badakizu...

- Parca izadazut arren,
Bekhaitz enuzu izanen:
Emazte houn zirela,
Orai badit nic proba.

6.2. Bereterretchen khantoria

J. Sallaberry, *Chants populaires du Pays Basque*, Bayonne, 1870, 209. or.



Bereterretxeren harria
(Argazkia: Allande Socarros)

Bereterretxeren laubürüa (*stèle discoïdale*) Etxebarre zolan, Ezpeldoipe altean.

Kantorearen arabera, hor eho züen jaun kontearen gizonek.



Bereterretx pastoralala tauladan
(Argazkia: Berria.info)

Trajeria hori, Pierre-Paul Berçaitsek hontürrik, ligiar-athereitarrek Atherein eman züen 2005ean. Oritaraz dezagün Berterrech pastoral bat, Etxahun-Irurik izkiribatürrik, 1958ko üdan emanik izan zela Maule-Lextarren eta Ligin.

Jaurgainek Sallaberryrena hartü dü hitzez hitz, bere grafia berritüarekin, izen bereziak salbü; horietan bi gisatara ari dira:

- Sallaberryk: *Berterretch, Mari-Santz, Bost-Mendieta.*
- Jaurgainek: *Bereteretch, Marisantz, Bostmendieta.*

Hein horrengatik balio düa Sallaberryren testüa osorik ager dezagün heben ? Jaurgainek zen bezala hartü züanaz geroztik, hiru salbüespen horiekin ? Ez zait üdüri. Bere leküan bego arren, Sallaberryren libürüan, beste kantore andana baten artean: hura bil eta osorik balia.

6.3. Atharratze jauregiko anderia

Francisque-Michel, *Le Pays Basque*, Paris, 1857, 265. or.

J. Sallaberry, *Chants populaires du Pays Basque*, Bayonne, 1870, 284. or.



Atharratze jauregian pastorala tauladan

(Argazkia: Atharratze jauregian pastorala. Data: 1997-07-20. Leküa: Atharratze. Egilea: Lucien Etxezaharreta.)

Trajeria hori, Pierre-Paul Berçaitsek hontürik, Atharratze-Sorholüzen emanik izan zen 1997 urtean. Süjeta Junes Chuburu kantari fama-tüa, Lüküz-Atharratzeko jaunaren leküan ari zen. Haren emaztea Ozaze Jaurgaineko alaba Maria zaikü plainüz ari kantorean.

Sallaberryren titülü / izenbürüa: Atharratze jauregian
(Ziberutarrez)

Jaurgainek Sallaberryren testüa hartü dü, haatik bertseten ordena kanbiatüz eta bertset bat kentüz; hona bertset hori:

Aita, zü izan zira ene saltzale,
 Anaie gehiena dihariren harzale,
 Anaie artekua zamariz igaraile,
 Anaie chipiena ene lagüntzale.

Zeren baztertü düan, aisa asma dirogü: bazakian Maria Jurgainek aita zentürik züala, arren ama alargüntsak züala alabaren ezkontzako tratüa egin, bai eta esposa gazteñiak anairik ez züala, bena hiru ahizpa. Bestalde bi testüen artean, diferentzia xehe zombait agertzen zaizkü:

- Sallaberryk: *Atharratz jauregian, Ongriako Errege, Aita, arrauba berdia, gero zaia churia.*
- Jurgainek: *Ozaze Jurgainean, Atharratzeko jauna, Ama, arrauba churia, gero zaia berdea.*

Francisque-Michelenak sei bertset dütü (Sallaberryk hamar, Jurgainek bederatzü):

ATHARRATCECO EZCONGAIA.

(Suberotarra.)

Atharrats jaureguian bi citroin doratu,
 Ongriagaray horrec bat du galdatu.
 Errepostu içan du ez direla onthu,
 Ontcen direnin batño izanen du.

- Aita, saldu nauçu miga bat beçala,
 Bai eta desterratu, oi ! Españara.
 Ama bici içan banu, aita, çu beçala,
 ez nintçan ezconduren Atharrats Salara.

Ahispa, jantz eçaçu erroba pherdia,
 Nic ere jantziren dut satina churia.
 Ingoitic hor heldu da çure jaun gueia.
 Botzez guita çaçü çure sor etchia.

Aita, joanen guira oro elcarrequin;
 Etcherat jinan (*jinen*) cira changrin handirequin ,
 Bihotça cargatua, beguiac bustiric,
 Eta çure alhaba tomban ehortciric.

Ahispa, çohaci orai Salako leihora,
 Ipharra ala hegua den emaçü guardia.
 Ipharra balin bada, goraintzi Salari
 Ene gorphutzaren cherca jin dadila sarri.

Atharratceco ezquilec bere motuz joten:
 Andere Santa-Clara bihar da phartitcen.
 Haren peco zaldia urhez da zelatcen;
 Hango chipi handiac beltchez dira beztitcen.

Nahiz biltzaleak zübereratzat dakarren, idazki hau behenafarreraz-
 koa da enetzat, eüskalki horren herexa nabarmenak jori beitütü:

– *galdatau, ontbu, ontcen, batño, izanen, miga, jantz, erroba, pberdia, satina, beldu da, elcarrequin, cargatua, çohaci, leihora, emaçü guardia, gorphutçaren, ezquilec, motuz, hango.*

Eta ez:

– *galtatu, hontu, hontcen, batto, ükenen, biga, jaunts, arropa / arrauba, berdia, zati, horra da, alkarrequi / algarrequi, cargaturic, çoaza, leiboala, kasü egizü / so egizü, kborpitçaren, zeñiec, oguz, hanko.*

Zübererazko kantore batentzat hanixko üdüri zait.

6.4. Egun bereko alharguntsa

J. Sallaberry, *Chants populaires du Pays Basque*, Bayonne, 1870, 190. or.

Sallaberryren izenbürüa: **Goizian goizik jeiki nündüzün**

Lehen bertseteko bigerren neurtitzaren hastean, *ere* aditz laguntzalea ez düe ber leküan ezarten Sallaberryk eta Jaurgainek:

– Sallaberryk: Bai eta zetaz ere beztitu...

– Jaurgainek: Bai eta ere zetaz beztitu...

Jaurgainek bezala ezar nezake.

Bigerren bertsetean zazpi kanbio, handi ala txipi. Konparatzeko gisan, hona biena:

– Sallaberry:

Musde Irigarai, ene jaona, altcha izadazüt büria;

Ala dolutu othe zaizü eneki esposatzia ?

- Ez, ez, etzitadazü dolütü zureki esposatzia,

Ez eta ere dolütüren bizi nizano lürrian.

– Jaurgain:

Mus de Irigarai, ene jaona, altcha izadazüt büria,

Ala dolützen othe zaizü enekila ezkuntzia?

- Ez, ez, etzitadazü dolützen zure espusatzia,

Ez eta ere dolütüren bizi nizano, maitia.

6.5. Mus de Sarri

Francisque-Michel, *Le Pays Basque*, Paris, 1857, 293. or.

J. Sallaberry, *Chants populaires du Pays Basque*, Bayonne, 1870, 204. or.

Hiruek zortzira bertset.

Sallaberryk izenbürü hau: **Urzo lüma gris gachua**

Bestalde liferentzia txipiñi elibat Sallaberry eta Jaurgainen artean:

– Sallaberryk: *Musde (lotürrik), arth' eta zabiz, Españalat, jinen, goraintzi, ni naika, ezkira.*

– Jaurgainek: *Mus de (bi zatitan), arthoz eta zabiz, Españalat, belturen, go'aintzi, ni naik', eztira.*

Hain gütigatik, bego hortan.

Hona orai Francisque-Michelena. Baxenabartartzat ekarten dü, bena klarki zübereraz da.

TROMPATCIA

(Basa nafartarra.)

Ene urçoñi gaichoa,

Ore bidian dahoa (*bahoa*);

Khasu emac, mousse Sarri, ihislari çorrotz houra,

Haiduru duc, oi, gaiski Petiriñalat bahoa.

Urço gaichoac umilki

Erraiten mousse Sarriri

Nahibadu den utsian harensaretan erori,

Utz dezan igaraitera bere usatu bideti.

- Auher duc, auher, urçoa;

Juratu diat fedia.

Aurthen behin jin behar duc Phetiriñala;

Han nic emanen dereiat arthoz eta ziaz asia.

- Arthoz hun duçu asia,
Denan (*Denean*) libertatia.
Eni Orhico ezcurra janhari bat zait hobia;
Angleser ihetsitceco, uzten dut uzten Francia.

- Ago, urçoa, ichilic:
Francian ez duc Anglesic;
Agaramountec Baionan jinac oro erhaiten tic,
Eztuc Petiriñalaco çaragolla luze hetaric.

- Fida niz çure erraner,
Fidago noure (*neure?*) hegaler.
Goraintzi erran iceçu jiten badira Angleser;
Halaber erranen diet Español papo gorrier.

- Meçuler naiça (*naica*) ni uzten ?
Ene sariac hola hesten ?
Enaic ez beste behin bortian hotz eraciren,
Ez ere hic beste ourthian hire irrigarri emanen.

Urço ederra, airian
Arhin bahoia bortian.
Jaun larru chouriac hiri mintzo auherrian,
Hire adin heiñeco gutic lumac garbi hen caloian.

Francisque-Michelen bertsione hontan, azken bertseta Musde Sarriren alde gaisetik doa ederki, beste bi ütürriek beno jelkibide zabalago bat eskeiniz.

6.6. Arbotiko prima eijerra

Maulen bildürrik omen 1895eko agorrilan, Donapaleuko Sarthou andereak kantaturik. Gainera Jaurgainen arabera, aldaera ez osoak Francisque-Michelek (325. ostoaldean) eta Sallaberryk (*Revue des Basses-Pyrénées et des Landes*, 1883-1884, 7. or.).

Hona Francisque-Michelen biak:

IHIZICO PARTIDA UROSA

(Suberotarra.)

Jaun baroinac chedelac ountsa hedatu çutian.,
Choribat hanitch eijerra hetan beharrez atçeman;
Orai harekin dago, nahituric aspaldian.

- Chedera baliz halaco mercatuetan saltceco,
Aitoren seme guciéc eros litzazkete oro,
Choritto ejer holaco cembaiten atzemaiteco.

Bai, zübereraz da, salbü titülüa, hiru ñabardüra txipiñirekin: *litzazkete* / *litzazkeie*, *cembaiten* / *çombaiten*, *atçeman* / *atçaman*, *atzemaiteco* / *atzamaiteco*, ordüko grafian egonez.

Jaurgainek bertset bat haboro dakar, bi horien artean kokatürrik:

Jaun barua orai zü,
Felizitätzen zütügü,
Zeren beitüzü Mus de La Plazaren prima eijerra esposatü;
Andere hori irus düzü: zuri ez deizügü dolü.

Geroztik bi bertsetez emendatü da kantorea, idazlan honen hastape-neko aurkezpenean agertürrik deitzüet. Eta honen ürrentzeko, hona orai ezpainenetan dabilan kantore osoa, bere bost bertsetekin:

ARBOTIKO PRIMA EIJERRA

Jaun baruak aspaldin (*aspaldian*)

Xederak hedatü zütin (*zütüan*)

Txori eijer bat atzaman dizü Paueko seroren komentin (*komentüan*)

Orai harekin biziren düzü, aspaldian gogun beitzin (*gogoan beitzüan*)
aspaldian gogun beitzin. (*gogoan beitzüan*)

Jaun barua orai zü

Felizitatzen zütügü

Zeren beitüzü Musde La Plazaren prima eijerra esposatü

Andere hori irus düzü, zuri ez deizügü dolü
zuri ez deizügü dolü.

Igaran apirilaren bürían (*bürüan*)

Armadaren erdian

Zü züntüdan bihotzean, armak oro eskian (*esküan*)

Present espiritüan, manka besoen artian (*artean*)
manka besoen artian (*artean*)

Jauna maite banaizü

Erraiten düzün bezala

Kita ezazü, kita ezazü erregeren zerbütxia (*zerbütxia*)

Eta maita herria, üken dezadan plazera,
üken dezadan plazera.


Xedera balitz halako

Merkatüetan saltzeko

Züberoako aitonon semek eros litzazkie oro

Halako txori eijertto zombaiten atzamaiteko
zombaiten atzamaiteko !

7. Agosti Chahoren kantutegia, 1844-1855



Agosti Chahoren kantutegia libürüa (Susa argialetxea)

Agosti Chahoren kantütégia, atharraztar famatüak 1844an agertürük, Patri Urkizuk berriz argitaratü dü 2006an, Zarauzko Susa argialetxean.

Patri Urkizuren libürü hortan agertzen dira *Berterretxen kbantoria* eta *Atharratze jauregian*, ehüneta bat kantoreren artean ondozka, bata 14. leküan eta 85. ostoaldean, bestea 15. leküan eta 90. ostoaldean. Jaurgai-nek ütürri hori ez dü aipatzen, eta normal da, kantütégia 2006 urtean agertürük beita. Gibelego axalean honela presentatzen da:

... Chahok argitaratzeko prest zeukan Kantutegia ez da egundaino inprimatua izan. Patri Urkizuren edizio honetan 101 kantu dituzu, Chahok *Chants populaires de la Navarre et des Provinces* bilduman agertzekoak zituen 70ak, eta baita ere *Ariel* aldizkarian eta bere liburuetan aipatu eta jasotakoak. (...). Libu-

ru honetako zenbait kantu doinuez lagundurik dituzu; batzuk Chahoren eskuizkribuetan ageri direnak, beste batzuk J.D.J. Salaberri, R.M. Azkue, Barbier-Dufau eta Aita Donostiarenak.

Artetik erraiteko, J.D.J. Sallaberry mauletarrak bere libürüko kantore güzien müsika dakar, ahaire bakoitxa bere testüaren aitzinetik. Ez dü heben agertzen batak eta besteak nontik hartü dütüan edo nori zor. Sargiako oharren ondotik eskertzen dütü kantoreen biltzen lagüntü düen jenteak, bena izenik eman gabe. Haatik müsikarentzat salbüespen bat egiten dü: «*Merci également à M. Alphonse DOTTERER, jeune musicien d'avenir, ancien élève du Conservatoire de Paris, qui a bien voulu faire des accompagnements de plusieurs de ces chants*».

Jaurgainek bere ütürriak agertzen deizkü, gorago ikusi dügün bezala: Francisque-Michel eta Sallaberry.

Francisque-Michelek ahal düalarik egiten dü: *Hauzeco anderia* eta *Musde Sarri* kantoreetan ez, *Atharratzeco ezkongai*a delakoan aldiz bai bere libürüko 264. ostoaldean (*Instructions relatives aux poètes populaires de la France*, Paris, Imprimerie impériale, MDCCLIII, 5. or.). Beste kantore zombait Xahorenganik dütüala idazten dü, gure xiberotarrak *Ariel* aldizkarian edo bere libürüetan agertürik. Bena Jaurgainek agertü seien artean ez dira sartzen: *Zelüko izarren bidia*, *Amodioa eta devoirra* / *Kbantore bat herritik apherilan emanik*, *Chorittoua nurat boua* / *Txorittua nurat bua*, *Ura eta arnoa...*

Xahok, gero Sallaberry bezala, ez dü salatzen bereak nontik dütüan. Goian aipatüriko bi kantore horietan aldaera elibat ikus ditirogü Xaho, Sallaberry eta Jaurgainen artean, bereziki *Berterretxan kantorean*. Sallaberryk eta Jaurgainek I5na bertset, biek ber ordenan; Xahok aldiz I3 bertset. Beste bienetarik ments dütü lehena «*Haltzak ez dü bibotzik...*», eta ürrentzetik goiti hirugerrena «*Ezpeldoiko jentia . . .*». Bestalde «*Andozeko ibarra...*» Sallaberryk eta Jaurgainek bigerren leküan agertzen düe, Xahok aldiz bederatzügerren leküan (beste bien arabera hamargerrenean), Büztanobiko bisitaren eta Maulerako lasterraren artean: Andozeko ibarra Larrainerik behera doa Ligirat, eta ez Lakarririk behera Atharratzerat. Gaineala Xahok ez dü Berterretxan amaren izenik aipü, beste bi eüskaldünek aldiz Marisantz deitzen düe.

Atharratze jauregian Xahok sei bertset, Francisque-Michelek bezala, eta honenen ber gisakoak, haatik ontsattoz klarkiago Züberoako eüskaran, Sallaberry eta Jaurgainenganik hanitx hüllan, bai hiztegian, bai erranal-dietan. Haatik kinperrez gora mintzo niz heben, bai eta gain hortan ere, Xaho lehen beitzen, eta seküla hiruen artean norbaitek beste norbait kopiatü balin badü, ez da hura izaten ahal. Sallaberryk hamar bertset, Jaurgainek bederatzü, gorago ikusi dügün bezala, eta badakigü historialari horrek zoin baztertü züan eta zeren, baita ber gisan zertako ama düan aipatzen alabaren saltzale bezala, aita salatzen düelarik beste hiru idazleek, Xaho barne. Arrapikatüren düt halere: gogoz gainti ezkontzean, Jaurgaineko alabak aita hilik züan, arren ezin züan harek saldü. Bestalde Xahok *idi* bat aipatzen dü, gero Sallaberryk ere; Francisque-Michelek aldiz *miga* bat idazten dü behenafarreraz, eta Jaurgainek ber kabalajea *biga* bat deitzen dü, zübereraz üsatzen dügün bezala, B eta M letra edo hizki ezpainkariak askazi hüllanak beitera, eta zonbait aldiz baliokideak: *Biarritz / Miarritze, heben / hemen, bezpera / mezpera*, eta prefosta *biga / miga...*

Jaurgainek Ozazeko zeinüa aipatzen dü, historiari etxekirik egonez, beste hiruek aldiz Atharratzeko zeinüa, kontairaren arabera: prefosta, andereak hortik joan behar düanaz geroz bere nahiaren aitzü Hongriako erregearekin ezkontzera, herriko zeinüak azken agurra igorten deio... Ber gisan hiruentako andere Santa-Klara da esposagei hori, Jaurgainentzat aldiz arrazurekin Jaurgaineko anderea, eta horren ahizpa Klara deitzen da, haatik mementoko bederen ezkongei eta sainta izan gabe. Bena Santa-Klararen kontaira hori popülüaren gogoan barna sartürük zagoan, eta ene ama zenak egiatzat aipatürük üken deit.

Aldaeren joriaz, hona zer dion Urkizuk 90. ostoalde zolan, *Atharratze jauregian* kantore horren aldepeko oharretan: «Aita Zabalak 19 aldaera ematen dizkigu, baina grafiak aldatuz eta hizkera berezitasunak errespetatu gabe. Chahorenean hiru bertsio ezberdin ageri dira, bi Santa Klara izenpean.»

Patri Urkizuk kantoreen grafia hein batetan berritü dü. Hein batetan diot, zeren erabili düana zübererak euskara batua finkatü aitzin baliatzen züan hura da, erdi fonetikoa, elizako libürüetan dagoena. Orai

zübereraz egarten dügüna batukoa da, logikatik hüllanagoa, Euskaltzaindiak 1978ko üdan, Bergarako Biltzarrean erabaki züanaren arabera, batuko grafia euskalkietara hedatü beitzüan: kontsonanteen ondotik *H* letra kentzen dügü, beste eüskaldünek bezala, salbüespenez kanpo, eta hitzaren erroa beti bere hartan ütüz, *ia* eta *ua* basa diftongak *ea*, *üa*, *oa* idazten: *etxe-a*, *lekü-a*, *zoko-a* (etxea, leküa, zokoa).

Bestalde Ürkizuk *Sallaberry* abizen / deitüra ofiziala eüskaldüntzen dü, *Salaberri* idatziz, bena *Chabo* bere hartan ützen. Gük aitzitik orokorki, eta bereziki *Sallaberry* horrekin, grafia ofiziala etxekitzen dügü, haatik *Xabo* delakoa eüskaldüntzen, zonbaitek ez dezaien xeheka «*Txao*» ahoskatüz, castellano / gatzelaniaren eraginez, «*Mitxel*» Labégueriarekin egiten düen bezala: Iparraldean CH eztiki ahoskatzen da X bezala, Hegoaldean aldiz gogor egiten TX bezala, eta hura nausitzen ari zaikü heben, leküz kanpo ere, adibidez frantsesezko *affiche* delakotik dügün *afixan*, Iparraldean ere hanitxek *afitxa* ahoskatzen düelarik, espainoletik horra balitz bezala.

Xahoren grafia edireiten ahal dügü *Atharratzeko jauregian* kantoreko azken bertsetean, Ürkizuk idazki berritüaren ondoko oharretan ekarten beitü:

Atharratzeco ceñiac
Berac arrapicatzen,
Andere Santa Clara
Herritic phartitcen,
Hanco tchipi handiac
Dira beltzez bestitzen,
Haren peco zaldia
Da chouriz estalzen...»

(A. Chaho, *Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan: itinéraire pittoresque*, Baiona, A. Andreossey, 1855, T. I, 12).

Francisque-Michelen bertsione hontan, azken bertseta Musde Sarriren alde gainetik doa ederki, beste bi ütürriek beno jelkibide zabalago bat eskeiniz.

8. Jaurgainen bibliografia

- 1877, *Histoire et généalogie de la maison d'Espeleta*, Talence.
- 1879, *Nobiliaire de Béarn*, Paris.
- 1885, Les capitaines châtelains de Mauléon, artikülü andana, *Revue de Béarn, Navarre et Lannes*, agerkari hortako 3 tomotan, azkena 1885ean. Libürütan agertü gabea.
- 1885, *Arnaud d'Oihenart et sa famille*, Paris.
- 1886, *Châteaux basques: Urtubie*, Bayonne.
- 1897, *Etude historique et critique sur les origines du royaume de Navarre, du duché de Gascogne et de la vicomté de Béarn*, Pau.
- 1898-1902, *La Vasconie: étude historique et critique sur les origines du royaume de Navarre, du duché de Gascogne, des comtés de Comminges, d'Aragon, de Foix, de Bigorre, d'Alava et de Biscaye, de la vicomté de Béarn, et des grands fiefs du duché de Gascogne*, Pau, 2 tomotan.
- Princi Negue SOED argitaletxeak berriz agertürük 3 tomotan: lehena Pauen, 2004ean, beste biak (2A eta 2B) Peyré Monderekin, Moneinen, 2007an.
- 1899, *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule*, Ligugé (Vienne departamentüan).
- 1904, *Cartulaire du Prieuré de Saint-Mont*, Paris.
- 1907, *Corisande d'Andoins de Guiche et dame de Gramont*, Bayonne.
- 1908, *Episodes de la guerre civile de Navarre, d'après un Compte de Pedro-Periz de Jassu, bailli de Saint-Jean et receveur des deniers royaux de Basse Navarre, 1451-1455*, Bayonne.
- 1908, *Journal de Pierris de Casalivetry, notaire royal de Mauléon de Soule*, Paris.

1910, *Trois villes, d'Artagnan et les Trois Mousquetaires. Etudes biographiques et héraldiques*, Paris.

1912, *La maison de Caumont-La Force, généalogie de ses diverses branches du XVème siècle à nos jours, rectifiée et suivie de ses preuves*, Paris.

1917, *L'évêché de Bayonne et la légende de Saint-Léon*, Saint-Jean-de-Luz.

1919, *Deux comtes de Comminges béarnais au XVème siècle. Jean de Lescun, bâtard d'Armagnac et d'Odette d'Aydie, seigneur de Lescun*, Paris. Francisque-Michelen bertsione hontan, azken bertseta Musde Sarriren alde gainetik doa ederki, beste bi ütürriek beno jalkibide zabalago bat eskeiniz.

Argazkien zerrenda

Ozaze Jaurgainea (Argazkia: en-pays-basque.fr)	IX or.
Zazpiak Bat: erredolak Jean de Jaurgainek bildürik (Argazkia: Wikipedia)	XII or.
Jean de Jurgain (1842-1920) (Argazkia: Wikipedia)	1 or.
Jean de Jurgainen hilarria Ziburun (Argazkia familiatik)	4 or.
<i>La Vasconie</i> libürüa (Argazkia: Azkue Biblioteka, Juan Carlos Guerra funtsa, 2746)	7 or.
<i>Quelques légendes poétiques du Pays de Soule</i> libürüa (Argazkia: Azkue Biblioteka, Bibliotekako Artxibo Orokorra, 248)	12 or.
<i>La Tradition au Pays Basque</i> libürüa (Argazkia: Azkue Biblioteka eta Artxiboa, Juan Carlos Guerra funtsa, 2009)	19 or.
<i>Le Pays Basque</i> libürüa (Argazkia: Azkue Biblioteka eta Artxiboa, Jon Bilbao funtsa, JB-I61)	65 or.
<i>Chants populaires du Pays Basque</i> libürüa (Argazkia: Azkue Biblioteka eta Artxiboa, Juan Carlos Guerraren funtsa, JCG-1992)	67 or.
Altzürükün Ürrütia jauregia, oraiko meria / herriko etxea. (Argazkia: Wikipedia)	69 or.

Urruti jauregiko pastoralaren KDa (Argazkia: Agorila) ...	69 or.
Bereterretxen harria (Argazkia: Allande Socarros)	73 or.
Bereterretx pastoralara tauladan (Argazkia: Berria.info)	73 or.
Atharratze jauregian pastoralara tauladan (Argazkia: Atharratze jauregian pastoralara. Data: 1997-07-20. Leküa: Atharratze. Egilea: Lucien Etxezaharreta.)	75 or.
<i>Agosti Chahoren kantutegia</i> libürüa (Susa argitaletxea)	83 or.